



Mikel Urdangarin abeslari zornotzarra Berango Antzokian izango da, zapatu honetan. ▶17



Kalakan hirukoteak Elementuak diskoaren kantuak eskainiko ditu apirilaren 30ean, Leioan. ▶8

hiruka Uribe Kostako astekaria



57. zenbakia
2016ko
apirilaren 28tik
maiatzaren 4ra arte

ArgIHizkiak lehiaketa, abian!



Testuak maiatzaren 2tik 31ra aurkez daitezke. Maila bi eta atal bi daude. ▶18

HERRIZ HERRI BERANGO

Bertoko produktuak

Maiatzaren 1ean, domeka, Nekazaritza eta Artisautza Azoka eta Euskal Pastelaren Euskadiko Lehiaketa egingo dituzte, Moreagan. ▶7



KULTURA GETXO - SOPELA

Eraldaketa sozialerako

Maiatzeko eguenetan denetan, «Komunikatuz eraldatu - Herriak euren komunikazioaren jabe» jardunaldiak antolatu ditu Mugarik Gabe GKEk, HIRUKAgaz elkarlanean. Sopelan eta Getxon egingo dituzte berbaldiak, mahai-ingurua eta dokumental-emanaldiak. ▶19

Zer ikasi? Gehigarri berezia

▶9-16



Toponimia-ibilbideetan eta Berbodromoan batu gura dituzte Getxoko euskaldunak Bizarra Lepoanek eta Egizuk. ▶3/18

Astrabuduko metroaren ondoko aparkalekua egokitzeko lanak egitea erabaki du Erandioko Udalak. ▶4

Sopelako Udalak udako aisialdi-programetan izena emateko epea zabalduko du, maiatzaren 2tik 31ra bitartean. ▶6

Lemoizko zentral nuklearrak hartzen dituen lurak berreskuratu gura dituzte Bizkaiko Batzar Nagusiek. ▶7



Pentsalekutik

MAITANE NEREKAN UMARAN
Ezertan aditua, askotan aritua

Isilduz gero, torturaren alde zaude

Ez da ohikoa nire zutabe honetan Uribe Kostatik urrunekoei erreferentzia egitea. Asmoa neukan oraingoan Algortako Hezetasun auzoaz hitz egiteko, bertako auzokideei elkartasuna helarazteko, bizi duten bortxaketa urbanistikoagatik (bertatik pasatzean antsietatea sentitzen dut). Baina, joan den asteko gertakari batek faxismoaren goia jo duela uste dut. Uribe Kostan gertatu ez bada ere, uribekostarion kontrako eraso ere bada: «Torturari ez» jartzen duen mural bat margotzeagatik 8 lagun atxilotu zituzten Iruñerrian.

Ipurtzulotik eta alutik sartutako pistolak, zure ama edo bikotea hiltzeko mehatxuak, itozten zaituen poltsa, barrabiletan emandako kolpeak, baimen barrik ukitutako titiak... Torturaz ari naiz; baita laster epaitua izango den Erika Bilbao leioz-tarrak eta hori sufritzen duten dozenaka uribekostarrez ere. Bai, sufritzen dutenez. Tortura ez delako 5 egunez pairatzen den indarkeria basatia, betiko gainean eramaten ikasi behar den motxila baizik.

Herri honetako ordezkarri politiko gehienek ondoko premisan sostengatzen dute euren morala: indarkeria gaitzesten ez baduzu, horren bultzatzaile eta parte zara (nahiz eta ekin-tza biolentoetan zuzeneko parte-hartzerik izan ez). Ideia horri jarraituz, ehunaka dira Euskal Herrian eta, etxera etorritik, Uribe Kostan, polizia-etxeetan, diru publikoz ordaindutako soldatapeko langileek praktikatzen duten biolentzia armatuaren kolaboratzaile-defendatzaile direnak. Bestela ulertezina da ikus-tea Iruñerrian gertatutakoaren inguruan zein ahots gutxi altxa diren; baita, Uribe Kostan bertan ere, torturaren aurkako irudi bat egin eta Ertzaintza hurbiltzea isunen bitartez Espainiar legea betearazteko. ◀

Getxo

Getxok onartu ditu 2016rako aurrekontuak

Udalak ia 104 milioi euroko aurrekontua onartu du, «murrizketarik gabekoa» eta «hiritar guztien interesen aldekoa».

Getxok badauzka 2016rako aurrekontuak; horiek osatzeko EAJ eta PSE-EEK osatzen duten gobernu-taldea EH Bildugaz ados ipini ostean. Hilaren 27an, eguaztenean, osoko bilkuran onartu zuten gobernu-taldearen proposamena, EH Bilduren abstentzioak babestuta; gainerako alderdiek ezinezona agertu zuten horien akordioa dela-eta.


Udalak 103.795.308,68 euroko aurrekontu bateratua izango du urte honetarako. Hala, kalitatezko oinarrizko zerbitzuak bermatzeko 36 milioi euro izango ditu; euskara, kultura, aisia, kirol eta ingurumenerako, 20,2 milioi euro; 18,4 milioi euro, gizarte-politike-tarako; 5,6 milioi euro, proiektu estrategikoetarako eta udal ondarearen kudeaketarako; 2,6 milioi euro, ekonomia jardueraren sustapenerako; 2,2 milioi euro, komunikazioa, parte-hartzea eta garduntasuna bermatzeko; eta 18,4 milioi euro, zorrotasun ekonomikorako eta kudeaketa eraginkorrerako.

EH Bilduk, «kideen ia %80k esandakoari jarraituz», abstentzioagaz eman die bidea aurrekontuei, «eurenak ez direla» argi izanda ere, lortutako akordioan «ezkerrerantz urratsak jasotzen direlako». GUK taldeak, bere aldetik, negoziaketa parte-hartzaile «falsua» izan dela salatu zuen eta osoko zuzenketa bat aurkeztu zuen; PPK ere beste osoko zuzenketa bat aurkeztu zuen. ◀

info+: www.hiruka.eus

2016ko aurrekontu bateratua (gehi kreditu gehigarria)


103.795.308,68 €



2016ko aurrekontu bateratua

94.306.017 €

Udala (Erakunde Autonomoen transferentzia kenduta)	%76,01
Getxo Kirolak	%8,48
Kultur Etxea	%6,45
Udal Egoitza	%5,88
Musika Eskola	%2,72
Kirol Portua	%0,45



GetxoGas

GetxoGason Euskararekin bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

prentsa · aldizkariak



Getxoko kirol portua · 94 491 53 21

OSABIDE Hartz-Klinika
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina. ALGORTA · 94 430 76 96

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia



Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

Getxo

Toponimia ezagutzera!

Getxoko ezaugarriez jabetzeko, ibilbide toponimikoak antolatu dituzte aurten ere.

Bizarra Lepoan euskara-elkar-teak toponimia-ibilbideak eskainiko ditu apiril, maiatz eta ekainean. Ohiko ibilbideez gainera (Hezeguneak, Kostaldeko Getxo, Getxo Barria, eta Betiko Getxo), aurten Begoñako Galerietan ere egingo dute. Ibilbideotan Getxoko historia, geologia, flora, fauna eta leku-izenak ezagutaraziko dituzte. Hala, bost ibilbide egongo dira, eta horietako bakoitza zapatu edo domeka batean eskainiko dute. Ohi den legez, ibilbideak euskaraz dira, eta taldeka egin daitezke.

Egitaraua

Hurrengo ibilbidea, Kostaldeko Getxo



Aurtengo berritasuna Begoñako Galerietako ibilbidea izango da.

izenekoa, maiatzaren 7an izango da eta Portu Zaharreko Etxetxutik aterako da. Maiatzaren 21ean, Neguriko Karmengo elizatik irtengo da Getxo Barria bidea; eta ekainaren 5ean, domekan, Getxoko Andra Mari elizatik, bizikletaz, besteak beste, Arteaga, Azkorri eta Zientoetxe-

tik ibiltzeko. Ekainaren 18an, Begoñako Galerietara izango da bisita, Ereaga, Atxekolandeta eta abarretatik ibiltzeaz gainera. Horietakoren batean parte hartu gura dutenek aldeztu aurretik izena eman beharko dute. ◀

info+: getxo.toponimia@gmail.com / 688 635 350

Puntu garbien zerbitzu mugikorra zabaldu dute

Puntu Garbi Mugikorraren zerbitzua udalerriko beste lau gunetara zabaldu dute, etxean sortutako hondakin arriskutsuen eta arriskutsuak ez diren tamaina ertaineko hondakinak jasotzeko aukera leku gehiagotan eskaintzeko asmoz. Halaber, zerbitzua eguazten eta eguenetan ere emango dute; orain arte aste-akabuko egunetan bakarrik bazen zitezten: barikutik domekara. Horrenbestez, 2010etik dauden puntuei, Itzubaltzeta-Areetakoari (Xake plaza) eta Algortakoei (Telletxe plaza, Bidezabal eta Iturgitxi parkea), gehitu zaizkie honako hauek: Gobelaurre parkea, Itzubaltzeta/Romon; Gernika parkea, Negurin; Salsidu-Ollarretxe, Algortan; eta Andra Mari ko kiroldegia, Getxon. Puntu Garbi Mugikorraren helburua da mota horretako hondakinak batu, biltzerakoan sailkatu, eta baimendutako gestioegileen instalazioetara eroatea, ostean tratatu eta birziklatzeko. ◀

Berb

dromoa

MAIATZAK 5
AREETAKO ESKOLETAN
ERROMOKO POTEKO GUNEAN
EMAN IZENA: WWW.EGIZU.EUS

**EUSKARAZ
ELKARTZEKO
GUNEA**

ZER DA BERBODROMOA? ZERTARAKO DA? NORENTZAT DA?

Euskara kalera ateratzea, euskararen erabilera indartzea eta indar-erakustaldia egitea dira Berbodromoaren helburuak, jendea euskaraz berbetan jarrita. Euskaldunak elkartuko gara eta elkar ezagutuko dugu, eta jai-giroan tarte atsegin bat pasatuko dugu.

NOLA EGINGO DUGU?

Talde bakoitzean bost pertsona egongo dira, berriketa lasaian. Gai bakoitzarentzat 15 minutu egongo dira eta gai baten eta bestearen artean, parte-hartzaileak taldez mugituko dira mintzakideak ere aldatuz.

EGITARAUA

• 9:00 LEHEN SAIOA • 11:00 BIGARREN SAIOA • 19:00 HIRUGARREN SAIOA
GOIZKO SAIOAK AREETAKO ESKOLETAN EGONGO DIRA ETA ARRATZALDEKO ERROMOKO POTEKO GUNEAN
Saio bakoitzaren amaieran MUSIKA eta PISKOLABISA

GAIAK

- Euskal Herriko txokorik magikoena zein da zuretzat?
- Bizitza zerrendak, adibidez, hil aurretik egin beharreko gauzak
- Zeintzuk topiko ezagutzen dituzu?

ZEU ERE BEHAR ZAITUGU, ZATOZ!
619 935 541 • www.egizu.eus • egizugetxo@gmail.com

Auzolanak



Babesak



Erando

Astrabuduko parkinga, martxan



EH Bilduk ontzat jo ditu metro-ondoko parkingeko lanak, baina behin betiko konponbidea gura du.

Erandioko Udalak Astrabuduko metro-geltokiaren ondoko aparkalekua asfaltatu eta egoikituko du, marrak pintatu eta farolak ipiniko ditu. Inbisa enpresaren lursail hori behin-behineko parkinga da auzokideentzat, baina aparkalekuak ez ditu behar besteko baldintzak betetzen, Udal Gobernuak onartu duenez. Gainera, lanei esker, leku gehiago egongo dira ibilgailua uzteko; zehazki, 330 autorentzat lekua, urritasunen bat duten pertsonen ibilgailuetarako beste sei leku, furgoiarako dozena bat marra, eta sei kamioi uzteko lekua.

Aipatutako proposamena EAJk eta PSE-EEK osatutako Udal Gobernuak iragarri zuen parkingen gaineko udal mahaiaren bigarren bileran, eta aurretik EAJren Astrabuduko Uri Batzarrak argitaratu zuen, aldizkaritxo batean. Metroaren ondoko horretaz gainera, Udal Gobernuak bestelako alderdiei

jakinarazi zien Atxutegi kalea norabide bakarrekoa izango dela, eta bertan marra berriak egingo dituztela. Era berean, ikastetxeetako udal parkingak auzokide guztiei 24 orduz zabalduko dizkietela adierazi zuten: «neurri horien bidez espero dugu, gutxienez, beste 80 leku lortzea».

Bestalde, EAJk eta PSE-EEK berba onak izan dituzte EH Bildurentzat: «kolaboraziorako jarrera izan du». Hailere, alderdi biek baztertu egin dute behin betiko parking publikoa egiteko koalizioaren proposamena, «urbanistikoki eta ekonomikoki bideraezina» delakoan. EH Bilduk «partxeen politika bertan behera uzteko» 500 autoko parkinga defendatu zuen, 4 bat milioi euroko aurrekontuko; «horren erdia merkatuko prezioaren azpitik salduko lekuetatik atera litekeena». EH Bildu prest azaldu zen eredia negoziatzeko, ezaugarri publikoa mantentzekotan. ◀

EGAk 9 urte bete dituela ospatuko dute zapatuan, Alzagan

Erandioko Gazte Asanblada 2007ko Eurtarrilean batzen hasi, eta apirilaren 28an aurkeztu zen jendaurrean. Hala, data horren bederatzigarren urteurrena ospatzen dabil EGA egunotan. Hala, zapatuan, goizeko 12:30etik aurrera hamaika jarduera izango dira Alzagan, gazteek antolatuta. Gazteen horma-irudia, Eguenero taldearen elektro-txotxa, eta bazkaria izango dira Irailaren 23a plazan, udaletxearen aurrean. Ondoren, 17:30ean, karokea euskaraz, eta zumba-saioa izango dira. Azkenik, lagunakaz jaia egingo du EGAk 21:30ean, Artaza Combat eta The Middle Fingers taldeakaz, eta Sukarra musika-jartzaileagaz. ◀

Gizonezkoentzako sukaldaritza-tailerra egingo dute Bekoan

Erandioko Emakumeen Elkarte Soziokulturalak antolatuta, berdintasunerako sukaldaritza-ikastaroa eskainiko dute maiatzean eta ekainean Alzagan. Antolatzaileek zabaldu dutenez, aipatutako sukaldaritza-ikastaroa gizonezkoen zuzenduta egongo da, eta Alzagako Bekoa eskolan egingo dute. Denera, 24 ordu iraungo du tailerak, honako martitzen eta eguenetan: maiatzaren 10ean, 12an, 17an, 24an eta 31n eta ekainaren 2an, 7an eta 9an. Ordutegia 19:00etatik 22:00etara izango da egun guztietan. Interesdunek apirila amaitu aurretik izena eman behar dute, emakumeen elkartekegoitza bertan. ◀

Elkarteetan euskara sustatzeko laguntzak

Erandioko Udalaren Euskara Zerbitzuak diru-laguntzen deialdia plazaratu du udalerriko elkarteentzat, euskara sustatzeko jarduerak finantzatzeko laguntzeko, «betiere Udalak onartua duen ESEP Euskara Sustatzeko Ekinntza Planean ezarritako helburu estrategikoetan oinarrituz». Proiektuak aurkeztuko dituzten elkarten artean, 5.000 euro banatuko ditu Udalak. Horretarako, pertsona juridikoek maiatzaren 20a baino lehen egin behar dute eskaera, udaletxeko erregistroan, Astrabuduko Udal Bulegoan, edo postetxeren batean, gutun ziurtatuaren bidez. Euskara

Zerbitzuak honako irizpideak erabiliko ditu, besteak beste, proposamenak balioesteko: proposatzaileak zer sustrai dituen Erandion eta inguruan; garatutako jardueraren jarraitasuna; beste erakunde batzuen finantzabideak eskuratzeko zailtasuna; elkarteak dituen bitarteko ekonomikoak; proiektua ESEPen helburuetara egokitzea eta lehenetsuneko alderdiak jorratzea; maiztasuna; originaltasuna; elebiduna edo euskaraz elebakarra izatea; hizkuntza, arraza, erlijio eta sexuen arteko berdintasuna sustatzea, eta ingurumena errespetatzea. ◀

info+: ErandiokoEuskaraz Zerbitzua.com

LUBERRI
OBRAK ETA ZERBITZUAK

- Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
- Inasketak
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Axpe ibaiertza 28A behea, B12 Lokala (ERANDIO)
629 41 18 38 · 94 467 17 13
luberry@euskalnet.net
www.luberry.biz

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

KONTXI ZVAVBIZKAR
Urdaitegixa

Kalitatezko elikagaiak zure mahaian

Alangobarri 10, ALGORTA - 94 491 02 93

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK

Eraikuntza zerbitzu integralak

Illeta, 1. 48991 ALGORTA
94 430 52 43 · 607 952 977
rgaraizar@gmail.com · www.garaizar.biz

GOIZEAN
«Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa»

Prentsa · Fruitu lehorrak
Aldizkariak · Libxerriak

Orduña mendatea, 1. GETXO · 94 430 22 13

Gaixotasun arraroak ikertzeko indaba-jana

Zapatuan, apirilaren 30ean, Erandiogiko Dandaka jatetxeak elkartasuneko baba-jana hartuko du. Ekimenean lortuko den dirua «gaixotasun arraroak dituzten umeak tratatzeko» erabiliko dute Loiuo Danontzat elkarte antolatzaileak jakinarazi duenez. Bazkarian, jakiz betetako saskia zozkatuko dute, eta bestelako opariak ere izango dira. Daborduko indaba-janerako txartelak eros daitezke jatetxean bertan, 15 euroan. ◀

Leioa

Herritarrentzako hainbat zerbitzu, abian

Elikadura osasungarriaren inguruko laguntza-zerbitzua sortu du Udalak. Horrez gainera, adingabeen heziketa eta sexu-aholkularitza lantzen segituko dute.



Zerbitzu horien gaineko zalantzak argitzeko: 946 072 576.

Leioaztarrei lagundu eta aholkuak emateko hiru «tresna» dauzka martxan Udalak. Orain dela gutxi, elikadura osasungarriari buruzko Elikadura zerbitzua sortu du Hezkuntza eta Herritarren Parte-hartze Sailak. Horren bidez, gai horregaz lotutako arazoan gaineko arreta eskaini gura die Udalak sendiei, eta, oro har, bizilagun denei. Horrenbestez, ikastetxeek eskaintzen duten kontzientzia-zio-lanaren osagarria izateko asmoa du Elikak. Telefonoz (678 404 443) edo posta elektronikoz (elikaleioa@hotmail.com helbidearen bidez) harremanetan jar daitezke herritarrek.

Bestalde, Etxadi familia-psikologia unibertsitate-zentroko adituek eskaintzen duten Psikologun zerbitzuan aldaketak egin ditu Udalak. Adingabeak hezteko orduan sor daitezkeen arazoak konpontzen laguntzen dute psikologoek; orain, aurrez aurreko arreta eskaintzeko aukera ematen du zerbitzu horrek, beti ere Etxadiko adituek komenigarria dela ikusten badute. Aita-amak telefonoz (944 051 549) edo posta elektronikoz (etxadi@etxadi.org) jar daitezke harremanetan Psikologun zerbitzuagaz.

di.org) jar daitezke harremanetan Psikologun zerbitzuagaz.

Zerbitzu horiek biek harreman zuzena izango dute Aterpe Leioa Gaztegunek neska-mutilei eta sendiei ematen dien Leihosex aholkularitza-zerbitzuagaz. Eguenero egoten da kontsultak egiteko aukera, 16:30etik 18:00etara; baita telefono (668 891 334), helbide elektronikoa (leihosex@hotmail.com), Facebook, Twitter edo Skype bidez ere. Zerbitzu horien guttien zalantzak argitzeko ondoko telefono-zenbakia jarri dute: 946 072 576.

Pobrezia energetikoa

Gasa, argia edo ura ezin ordaintzea-gatik, herritarrek horniduran jasan ditzaketen mozketak saihesteko, diru-kopuru bat ipini du leioaztarren esku Udalak. Agintariak azaldu dutenez, laguntzaren eskaeraren inguruko ebazpena eman arte, eta larrialdi osoko kasuetan hornidura horien etaldia berehalakoa izan daitekeelako, Udalak Caritas eta Sortarazigaz lanean dihardu, prestazio horren aurrerapena berehalakoa izan dadin. ◀

Maiatzaren Lehena ekitaldiz jantzi du Ezker Abertzaleak

Maiatza Gorria izeneko jardunaldiak egiten dabil Leioako Ezker Abertzalea. Besteak beste, eguen honetan, apirilak 28, *Las mil caras de la precariedad* izeneko mahai-ingurua egingo dute, 19:30ean, Sakoneta kiroldegian. Zapatuan, berriz, *Zuen aberastasuna, gure miseria* goiburua jarri diote, 13:00etan, Boulevarden egingo duten txorizo-janari. Maiatzaren Lehenera helduta, LABek egindako deialdiagaz bat egingo dute. Herrialde osoko mobilizazioa Ezkerraldean izango da. Horrenbestez, 11:30ean, Portugalerako tren-geltokian ipini dute hitzordua; ekitaldia Sestaoko Kasko plazan izango da, 13:00ean. ◀

Hurrengo asteetako ekimenak aurkezten dabil Herrigune

Hurrengo asteetan egingo dituzten ikasketa-prozesu komunitarioen berri ematen dabil Herrigune egitasmoa. Besteak beste, maiatzean, astelehenero, zeinuen hizkuntza ikasiko dute Ondiztorren, 17:30etik 19:00etara. Maiatzaren 18an, 20an eta 25ean, berriz, Euskal Herriko Unibertsitatea barrutik ezagutzeko aukera edukiko dute, baita leioaztarrek eta unibertsitate-ikasleak elkartzeko ere. Izan ere, Herrigunek eta EHuko Zientzia Fakultateak hainbat bisitaldi tematiko antolatu dituzte. «Egun batzuetan gu joango gara, eta besteetan haiek etorriko dira...», adierazi dute Herrigunekoek. ◀

info+: herrigune.org

Leioaztarrek ere Urdulizko ospitalera joango dira

Urdulizko Alfredo Espinosa ospitalearen eragin-esparruak Leioa udalerrira ere hartuko du, Iban Rodriguez alkateordeak baieztatu duenez. Orain arte, Gurutzetara bidaltzen zituzten larrialdiren batengatik artatuak izateko beharra zeukaten dutenean, alderantzizko bidea hartu beharko dute. Hala ere, orain arte legez, hainbat espezialitatetako kontsultategiak Areetako osasun-zentroan izango dituzte Leioako bizilagunek. Berbarako, umedun dauden leioaztarrek Areetan edukiko dute ginekologoa. Hori bai, Urdulizera joan beharko dute erditzera. Udak agintariak «begi



Eskualdeko herri denak hartuko ditu.

onez» ikusten dute aldaketa, «denon onerako izango delakoan» daude, eta «Gurutzetako zerbitzuak arintzen lagunduko duelakoan». Ekainetik aurrera, zerbitzuak apurka eskaintzen joango da Urdulizko ospitalea. ◀



Gai (des)ordena

LOHITZUNE RODRIGUEZ AURREKOETXEA
Filosofian lizentziatua

Kolektibotik norbanakora

Antolatu eta borrokatu. Horiek mugimendu ezkertiarren funtsezko leloak. Horiek, hain zuzen, gauzak aldatzeko ezinbestean eman beharreko urratsak, praktikatu beharreko konstanteak. Halaxe egiten dugu askok, herri hobia eraikitzeko asmo eta grina biziz. Maiz gogorarazi dugu, zentzuz, borroka kolektibo barik ezer gutxi erdiets daitekeela, batzuen borroka indibidualak ezin baitu gizarte osoa irauli. Ados. Eta alderantziz? Eralda al daiteke zerbait konpromiso indibidualik hartu gabe? Norbere kontraesanak gaindituz joatea ez al da nahitaezkoa gizarte berria eratzeko? Esango nuke, arlo horretan, badugula nahikoa etxerako lan... ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkartearen ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

Ikastolen Elkartea

Sopela

Udarako proposamenak

Udalekuetan izena emateko epea zabalduko du Udalak, maiatzaren 2tik 31ra bitartean.

Udalekuetan izena emateko epea zabalduko du datorren astean Sopelako Udalak. Hala, maiatzaren 2tik 31ra bitartean, gurasoek euren seme-alabak inskribatu ahal izango dituzte Summer Camp, Musikaz Blai, Udaleku Irekiak eta Surf Udalekuak aisialdi-egitasmotan. Horretarako, Sopelako udaletxera, Sopelarinera edo Kurtzio kultur etxera jo beharko dute.

Musikaz Blai egitasmoan kantua, mimika musikala, dantza eta antzerkia landuko dituzte 5 eta 12 urte arteko neska-mutilek; azkenengo egunean erakustaldia egingo dute. Summer Camp



Neska-mutilek aukera ugari izango dituzte gozamenerako udako egunetan. © SOPELAKO UDALA

2016 ingelesean murgiltzeko 15 eguneko egonaldia da, 12 eta 15 urte arteko gazteei begirakoa. Udaleku Irekiak, berriz, udalerrian erroldatutako 4 eta 12 urte arteko zuzenduta daude, eta 4 txanda egongo dira, udako astee-

tan banatuta. Surf Udalekuek 13 eta 17 urte arteko gazteen artean euskararen erabilera sustatuko dute, surfa egiten duten bitartean; 15 eguneko txanda bi egongo dira. ◀

info+: www.sopelakoudala.eus

Udaltzaingoaren ekipamendua hobetu gura du Udalak

Sopelako Udalak 57.800 euro inbertitu ditu azken urte biotan Udaltzaingoaren ekipamendua egokitzeko. Gontzal Hermosilla alkatearen berbetan, inbertsio horrek sopeloztar guztien segurtasuna bermatzeaz gain, «auzotarren bizi-kalitatea hobetzeko helburua du, zerbitzu hobeko bat eskainiz». «Jaztik ikusten genuen Udaltzaingoaren ekipamenduek hobetzeko beharra zutela, eta horregatik, 57.800 euroko inbertsioa egin dugu 2015. eta 2016. urteetan», gaineratu du. Hala, Udalak 30.000 euro inbertitu ditu auto berri bi erosteko, 25.000 euro Tetra (Terrestrial Trunked Radio Access) irrati-sistema digitala egokitzeko, eta 2.800 euro, hiru pistola erosteko. Era berean, balen eta sastaden aurkako txalekoak erosteko beste 14.000 euro inguru inbertitzea aztertzen dabil Sopelako Udala. ◀

Gorliz

Zapatuan nazioarteko dantzen erakustaldia egingo dute

Nazioarteko Dantza Eguna ospatzeko asmoz, estilo ezberdinetako dantzen emanaldiak eskainiko dituzte Gorlizaren apirilaren 30ean, zapatuan. Hala, inguruko udalerrietatik etorritako dantzari profesionalak dantza-emanaldiak eskaintzeaz gainera, Step Up Dance Studio eskolako adin guztietako ikasleek ere dantzen erakustaldia egingo dute, ballet, street dance, jazz, saltsa eta bachata kategorietan. Horiez gainera, dantza polinesiarra, flamenkoa edo hip-hop estiloak ikusi ahal izango dira. Euskal dantzek ere euren tartera izango dute, Aratz eta Itsas Eder taldeek dantzatzeko baitu-



Dantza mota ugari ikusi ahalgo dira Ibarretan.

te. Hitzordua arrastiko 06:00etan jarri dute, Gorlizko Ibarreta plazan. Dantzen ikuskizunaren ondoren, *Zumbaton* saioa eskainiko dute hurbildutako guztien gozamenerako. ◀

Barrika

San Juan jaiak iragartzeko kartel-lehiaketa abiatu dute

Barrikako Udala udalerriko jaiak Biragarriko duen kartel bila dabil. Horretarako, barrikoztar gazteenei buruari eragiteko eta San Juan jaietarako kartela egiteko deia egin die. Hala, kartel-lehiaketan 0 eta 14 urte arteko neska-mutilek parte hartu ahal izango dute, eta gura beste lan aurkeztu ahal izango dituzte. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, kartela egiteko gaia libreza izango da, «baina zerikusia eduki beharko du herriko jaiekin». Lanak DIN A4 formatuan entregatu beharko dituzte parte-hartzaileek, bertikalean eginda, maiatzaren 13a baino lehen, Udal Liburutegian, Txintxilandia pla-

zan. Epaimahaia Jai Batzordeko kideek eta Kultur Aretoko langileek osatuko dute, eta maiatzaren 20an jakinaraziko dute zein izango den kartel irabazlea. Azaldu dutenez, erabakia irmoa izango da, eta ezin izango da apelaziorik aurkeztu. Saria bakarria izango da: 100 euro pintura-materialetan. Halere, epaimahaiak saririk ez ematea erabaki ahal izango du, aurkeztutako lanen kalitatea «nahikoa» ez bada. Lanek goiburua ere izan beharko dute, irudiaren atzeko aldean idatziko dena, eta kartazal itxi batean hurrengo datuak adierazi beharko dituzte: izen-abizenak, adina, helbidea eta telefono-zenbakia. ◀

IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK
ABIERTO PERIODO DE INSCRIPCIÓN

HAURRESKOLA

SOPELAKO
haurreskola

Izena emateko epea

Maiatzaren 2tik 11ra

94 676 25 59

www.haurreskolak.eus

ARTOLOZAGA
ANAIK

Tailerrak

Mekanika - Karrozeria - Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.tallerartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

BOSCH
Service

Car Service

haur hezkuntzatik
ander deuna batxilergora

Gatzarrine bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunailkastola.eus

Berango

Bertoko produktuak eta euskal pastelak, plazara

Maiatzaren 1ean, domekan, Nekazaritza eta Artisautza Azoka eta Euskal Pastelaren lehiaketa egingo dute.

Maiatzaren Lehenean, domekan, bertoko nekazari eta artisauak Berango bisitatuko dute. Izan ere, urtero legez, Berangoko Simon Otxandategi dantza-taldeak Nekazaritza eta Artisautza Azoka antolatu du domeka honetarako. Aurtengoa XXIII. ekitaldia izango da, eta guztira 64 postu egongo dira Moreaga parkean. Horieta denetan, honakoak aurkitu ahal izango dira: bisuteria, harri landuak, arropa, arrain-kontserbak, barazkiak, pastelak, ogiak, eztia, txakolina, loreak, txokolata eta trufak, besteak beste. Ibilaldia 2016ko antolatzaile durangarrek ere euren lekua izango dute, Berangora bertaratzen direnei ikastolen aldeko jaiaren nondik norakoak azaltzeko.



Guztira, 64 postu egongo dira domekan, Moreaga parkean. © BERANGOKO UDALA

Ezin aipatu barik utzi, azokaz gainera, aurten ere ospe handiko euskal pastel onenaren Euskadiko lehiaketa egingo dutela. Oraingo honetan, guztira, Euskal Herriko txoko ezberdinetatik 11 gozogilek parte hartuko dute norgehiagokan; horiek ere euren postutxoa izango dute azokan. Horretarako hitzordua ere egun berean izango da, maiatzaren 1ean, domekan, goizeko 10:00etatik 14:00ak arte. Gero, euskal

pastelaren sariak banatuko dituzte, egun biribilari amaiera emateko. Horrez gainera, umeentzako parkea, trikiti-joleak, joaldunak eta txistulariak ibiliko dira han eta hemen, Moreaga parkeko giroa alaitzeko. Era berean, antolatzaileek jakinarazi dutenez, zuzeneko konexioak egingo dituzte Bizkaia Irratiagaz, Javier Garcia Elgezabal kazetariak gidatuta. ◀

info+: www.berango.net

Lemoiz

Lemoizko zentral nuklearreko lurrak berreskuratu guran



Lemoizko zentral nuklearra, gaur egun.

Bizkaiko Batzar Nagusiek onartu dute ahalmena duten instituzioei, hau da, Eusko Jurlaritzari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Lemoizko Udalari, zentral nuklearrak hartzen dituen lurrak berreskuratzeko «eman beharreko pausoak» eman ditzaten eskatzea. EH Bilduk aurkeztu du horretarako mozioa, eta talde guztiak horren alde agertu dira, PP izan

ezik, kontra bozkatu baitu. EH Bilduk gogoratu duenez, iaz amaitu zen luzamendu nuklearra, «beraz, Iberdrolarentzat adostutako kalte-ordaina guztiz ordainduta geratu da». Iberdrolak Lemoizen egindako inbertsio osoa hartzen du kontuan indemnitazio horrek, Onintze Oleaga EH Bilduren batzarkideak azaldu duenez. ◀

info+: www.hiruka.eus

Uribe Kosta

Eskualdeko geologia ezagutzeko ibilaldia, maiatzaren 8an

Aurten ere Geologia jardunaldiak egingo dituzte Espainiar Estatuan. Ekimen hori geologoek gidatutako doako ibilaldi-sorta da, edonork parte har dezan eskaintzen dituzte. Hala, aurten Bizkaiko txangoa maiatzaren 8an izango da, domekan, eta ibilbideak Galea (Getxo) eta Sopela lotuko ditu. «Apar-teko kokagunea izanik, Galeatik Soperaraino doan kostaldeko ibilbidea aukeratu dugu aurten ibilaldi geologikoa egiteko; izan ere, kokapen horretan azaltzen diren material geologikoak maila mundialeko erreferente zientifikoak dira», azaldu dute antolatzaileek. Ekimen horien bidez ondare geologikoaren dibulgazioa bultzatu gura dute. Txangoa 10:00etan hasiko da, Galeako gotorlekuaren ondoko aparkalekutik abiatuko dira parte-hartzaileak. Amaiera, ostera, Soperako Atxabiribil hondartzan izango da, 17:00etan. Ibilaldi horretan parte hartu gura dutenek aldeztatik izena eman dezakete. ◀

izen-ematea: servicios.scigea@gmail.com



B aldea

UNAI
BREA GONZALEZ
Argiako kazetaria

Australian ibai batek su hartu zueneko

Kalkulatzen dut, irakurle, lerro hauek zuregana iritsi orduko birala izango dela interneten Australiako ibai bat su hartzen erakusten duen bideo bat. Haustura hidraulikoa –lagunartean fracking– erabiltzen ari diren hidrokarburo hobi batetik kilometro eskasera gertatu da; hain zuzen, bertako ekologistak joan dira metxeroa eskuetan garrak piztera, frackingaren ondorioak salatzeko helburuz.

Ez da hainbeste zabaldu Kanadatik datorren beste berri hau: Alberta estatuak baimena eman dio atzera Repsol espainiarri frackinga erabiltzeko Fox Creek izeneko leku batetik hurbil. Zergatik kendu zion baimena lehenago? Bada, haustura hidraulikoak lurrikara bat eragin zuelako urtarrilean inguru berean.

Martxo amaieran eman zen argitara Kanadako mendebaldean 30 urtez gertatutako zenbait lurrikararen eta frackingaren arteko lotura zuzena erakusten duen ikerlan bat. Lehenago ere jakina zen haustura hidraulikoan erabiltzen diren fluidoak hondakinak lurpean injektatzeko lurrikarak sor ditzakeela; baina industriak ukatu izan du frackingak berak –alegia, zultze teknikak– sismizitatea eragin dezakeenik. Ea orain zer dioen.

Gero eta zailagoa da frackingaren alde egitea, inoiz erraza izan bada. Ustezko onura ekonomikoaren argudioa ere indargabetuta dago, askok aspaldi iragarritakoa gertatzen ari da eta: burbuila lehertu da. Milaka langile kaleratu, milioika dolarreko galerak... Eta hala ere, jaun-andreok, temati ari da teknika horren defentsan Espainiako Gobernua; bai, jardunpeko hori. Azken-aurrekoa EAeko legeari helegitea aurkeztea izan da. Mihi gaiztoek diotenez, Eusko Jurlaritzan sekulako lasaitua hartu dute batzuek Madrilan erabakia jakindakoan. ◀

hirukagenda

Uribe Kostako asfekaria

2016ko apirilaren 28tik maiatzaren 4ra arte



hiruka.eus



Kalakanen *Elementuak* diskoa zuzenekoetan edo taldearen webgunean (www.kalakan.fr) bakarrik erosi ahal izango da. © KALAKAN

LEIOA

Sustraietara bueltatu da Kalakan musika-taldea

Zapatu honetan, apirilak 30, Kalakan musika-taldeak kontzertua eskainiko du Kultur Leioako entzungelatan. Ipar Euskal Herrietik heldutako hiru kantari eta perkusio-joleek *Elementuak* euren azken lanaren abestiak joko dituzte, 21:00etatik aurrera; Bilbon aurkeztu zuten diskoa zuzenean, Loraldia udaberriko jaialdiaren barruan, hilaren 24an. Kultur Leioako emanal-

diko sarrerak daborduko salgai daude, 10 euroan.

Hamalau kanta dauzka Thierry Biscary, Jamixel Bereau eta Xan Errotabehere musikariak osotutako lan berriak; euskal kantutegiaren mamia aztertu, eta berrinterpretatu dute. Urte bi eman dituzte diskoa atontzen. Madonnagaz egindako biraren ostean, diskoa frankil landu gura izan

dute. Zazpi hilabeteen 88 kontzertu eman zituzten-eta, munduko hainbat lekutan; bira zoro hori amaituta oinarrietara bueltatzeko erabakia hartu zuten. Euskal Herriagaz eta euren musikagaz berriro konektatu behar zutela diote. Kanta instrumentalak, ahotsa baino ez daukatenak, eta euskal kanta ezagunen irakurketa berriak ere topatuko ditugu. ◀

2016/04/28 - 11:00

Manifestazioa: Amnistia!

Mikel Laboa plaza (campusa) | Leioa

Hainbat ikaslek deitutako Amnistia Astearen barruan egingo dute.

2016/04/28 - 18:00

Pride pelikula

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Itzartu emakumeen elkarateak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/04/28 - 19:00

Erandioko Musika Eskolako ikaste ohien kontzertua

Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Erandioko Musika Eskolaren 25. urteurreneko ekitaldien barruan. Sarrera, doan.

2016/04/28 - 20:00

Ruta 637 soul-rock taldea

Silver's Tavern (Algorta) | Getxo

Getxo Zuzenean ekimenaren barruan. Doan.

2016/04/29 - 20:30

Dantzaria ikuskizuna

Kultur Leioako entzungela | Leioa

Andoni Aresti Dantza Eskolagaz. Berba barrik. Sarrera: 6 euro.

2016/04/30 - 09:30

Fernando Astorki bizikletazaleen lasterketa

Sakoneta kiroldegia | Leioa

Leioako Udal Kirol Instalazioek eta Txori-Erri Bizikleta Elkarateak antolatuta. informazio gehiago: www.leioakiroldegia.net

2016/04/30 - 10:00etatik aurrera

Kolektibo Norte Erandio-ren zortzigarren urteurrena

Lamiako bosteko futbol-zelaia | Leioa

Bosteko futbol-txapelketa (5 euro, talde bakoitzeko) eta bazkaria egingo dituzte. Horrez gainera, 19:00etan kontzertua (4 euro) izango da, Udondo gaztetxean. Txartelak (bazkaria eta kontzertuak): 12 euro.

2016/04/30 - 12:00etatik aurrera

Nazioarteko Dantza Eguna

Xake plaza (Areea) | Getxo

Udaberriko dantza-eskola eta taldeakaz. Erakustaldia (12:00), euskal dantzak zein *lindy-hop*-a ikasteko talerrak (17:00), eta dantza-gata (19:30) egingo dituzte. Doan.

2016/04/30 - 12:30etik aurrera

Erandioko Gazte Asanbladak,

2016/04/30 - 19:00

Dantza, plaza

Josu Murueta plaza (Astrabudua) | Erandio

Trabudu Dantzari Taldeak antolatuta. Euskal dantzak ikasi edo praktikatzeko. Doan.

2016/04/30 - 20:00

Umore-bakarrizketak

Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Encomediados zirkuituaren barruan. Rafa Alarcon eta Oscar Tramoyeres umoristakaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/04/30 - 20:15

Abesbatzen kontzertua

Andra Mari Sortez Garbia eliza | Gorriz

Lirain Txiki, Txuma Olague (Sondika) eta Bakioko abesbatzek kantatuko dute. Doan.

2016/04/30 - 20:15

Objetivo: Londres pelikula

Kultur etxea | Urduliz

16 urteik gorako ikusleentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro.

2016/04/30 - 22:00

Gaueko argazkilaritza-tailerra

Anbulatorio zaharra (Altzaga) | Erandio

Berokia eta tripodeta eroatea gomendatu dute. Doan. Informazio gehiago: takolos.org

2016/05/01 - 10:00-14:00

Nekazaritza Azoka

Moreaga parkea | Berango

Simon Otxandategi Dantza Taldeak antolatuta. Nekazari eta artisauen postuez gainera, Euskal Pastelaren Euskadiko Txapelketa egingo dute. Sarrera, doan.

2016/05/01 - 17:00

Tom txiki eta ispilu magikoa animazio-pelikula

Areetako musika-eskola | Getxo

Denontzat. Euskaraz. Sarrera: 2,10 euro.

2016/05/01 - 18:00

The boxtrolls pelikula

Berango Antzokia | Berango

Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/05/02 - 18:30

Dos dias y una noche filma

Algotako kultur etxea | Getxo


Enclave emakumeen taldeak antolatuta. Solasaldia ere egingo da. Gaztelaniaz. Doan.

2016/05/03 - 10:00-15:00

Nekazaritza-azoka ekologikoa

hiruka

Uribe Kostako astekaria



**Gehigarri
berezia**

2016ko
apirilaren 28tik
maiatzaren 4ra arte

Zure etorkizuna martxan! *Gazteei begirako gehigarria*

Hurrengo orrietan eskualdeko hainbat institutu eta Lanbide Heziketako ikastetxeen eskaintza zabala duzu; batxilergoak, goi-eta erdi-mailako zikloak, bekak...



Uribe Kostan Arte Batxilergoa duen institutu bakarra

Izena emateko bideak

Online edo ikastetxeko idazkaritzan bertan. Idazkaritzako orduetgia: 08:30-14:00 / 15:00-16:30
Familia berriekin banakako hitzorduak eskatzeko aukera dago. Telefonoa: 94 480 10 05 / 11 56.

IES artatza Romo BHI
Bigarren Hezkuntzako Institutua
ANIZTASUNA - KALITATEA - SORMENA

Uribe Kostan Arte Batxilergoa duen institutu bakarra!

IES artatza Romo BHI



Helbidea:
Amaia kalea 28,
48940 Leioa

Telefonoa:
944 801 005
944 801 156

E-maila: 015111aa@
hezkuntza.net

Webgunea:
www.artazaromo.
com

Ikasketak:
DBH eta Batxilergoa

Artatza-Romo institutuak A, B, D eta Eleanitza ereduak eskaintzen ditu. Zentroak hartzen duen lurralde-esparrua hain da anitza, halakoak direla ikasleak ere: Leioakoak ez ezik, Getxo eta Uribe Kostakoak ere bai. Ikastetxeak hezkuntza

inklusiboa eta parte-hartzailea lantzen du honako pedagogia proiektuen bidez: Bizikidetzeta, Normalkuntza, IKT, Eleaniztasuna, Agenda21, Bikoteka irakurtzen eta Europako elkartrukeak. Guztiak ahozko kompetentzia eta baliabide digitalen bidez sustatzen dira.

Aixerrota BHI

Pertsonaren hezkuntza integrala dugu helburu

Izena emateko bideak:

Online edo ikastetxeko idazkaritzan bertan. Idazkaritzako orduetgia: 09:00-13:30 / 15:00-16:30
(barikuetan izan ezik). Info+: www.aixerrota.hezkuntza.net

AIXERROTA BHI

BATXILERGOAK

- ZIENTIFIKOA
- GIZARTE ZIENTZIAK ETA HUMANISTIKOA

DERRIGORREZKO BIGARRIN HEZKUNTZA: B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA: A ETA D EREDUAK

<http://www.aixerrota.hezkuntza.net/>
94 491 17 86



Helbidea:
Santa Marina Haitza
14, 48993 Getxo

Telefonoa:
944 911 786

E-maila:
015109aa@
hezkuntza.net

Webgunea:
www.aixerrota.
hezkuntza.net

Ikasketak:
DBH eta Batxilergoa

Aixerrota Ikastetxeak, 1983an sortu zenetik, irakaskuntza euskalduna eta pedagogia berritzailea izan ditu ezaugarri nagusiak. Proiektuak pertsonaren hezkuntza integrala du helburu, zeregin horretan oinarritzko balioak ditu hauek: erres-

petua, askatasuna eta autonomia pertsonala. Euskara da bizikidetzarako eta komunikaziorako bitarteko nagusia. Egun, ikastetxeak hamaika proiektu ditu martxan, hala nola, Agenda 21, IKT, Normalkuntza, Sarehezkuntza eta Eleaniztasunerantz.

Getxo ezagutzeko ibilbide gidatuak

Getxoko ondare etnografikoa eta toponimia ezagutu nahi duzu?

Etorri gurekin Getxo ezagutzera

Maiatzaren 7an "Kostaldekoko Getxo" ibilbide gidatua izango da!
Goizeko 09:00etan Carmengo elizatik irtenda.

IZENA EMATEKO edo
INFORMAZIO GEHIAGORAKO:
688 635 350 bulego orduetan
getxo.toponomia@gmail.com
<http://getxokotoponomia.blogariak.net>

QR code

EUSKARAZ

Apirila, Maiatza eta Ekaina

Fadura LHII



Helbidea:
Bizkerre z/g,
48991 - Getxo

Telefonoa:
944 069 000

Faxa:
944 069 001

E-maila:
instituto@fadura.
eus

Webgunea:
www.fadura.eus



Fadura LHII Ikastetxea

Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua

Fadura Ikastetxeak 30 urte baino gehiago daroatza kalitatezko zerbitzua eskaintzen, ingurugiroarekiko begirunea eta pertsonen segurtasuna bermatuz.

Fadura LHIIren xedea da gazteak gizatasunez eta arlo teknikoan prestatzea, gizartearen integratzaileak izateko bai lan-mundura bai beste ikasketetara sartzeaz batera. 1980tik daroa ikastetxeak lanbide-heziketa eskaintza zabala ematen: goi- eta erdi-mailako heziketa-zikloak, eskaintza partziala, heziketa duala, enplegurako formakuntza, zereginen gela... Getxoko Fadura ingurunean

dago, garraio -zerbitzu publikoetatik hurbil: metroa, autobusa... Irakas-baliabide eta instalazioei dagokienez, ikastetxeak kalitatezko ekipamendua eskaintzen du, eta ikasle eta enpresen asebetetzea urtez urte handitzen du, horien beharrezan erantzunez.

Estrategia eta balioak

Balioetan hezteko da Hezkuntza Proiektuaren oinarria, etengabeko harrera

lagunkoiaren, beti hizketa-giroaren, ulermenaren eta berdintasunaren alde agertzen da zentroa. Aniztasuna ikasteko aukera bezala ulertuz, eta dibertsitateari eskaintako arreta da pertsona eta komunitatearekiko duen konpromisoa.

Era berean, ikasleen prestakuntza-mailagatik, formakuntza-eskaintza zabalagatik, laneko segurtasunagatik eta inguruarekiko konpromisoagatik, kalitate eta etengabeko hobekuntzarako kudeaketagatik eta eskualdean enpresa eta inguruaren erreferentzia izateagatik, gura dute gizarteak ezagutzeko ikastetxea.

A, B eta D ereduak

Hezkuntza-eskaintza:

Goi-mailako Heziketa-zikloak

- Mantentze-lan elektronikoa
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Haur-hezkuntza
- Gorputz- eta kirol-ekintzen sustapena
- Osasun-dokumentazioa eta administrazioa

Erdi-mailako Heziketa-zikloak

- Telekomunikazio-instalazioak
- Mekanizazioa
- Karrozeria
- Ibilgailu automobilen elektromekanika
- Erizaintzako laguntzaileak
- Osasun-larrialdiak
- Eskaintza partziala:
 - Anatomofisiologia eta oinarriko patologia
 - Enpresa era ekimen sortzailea
 - Lanbide-prestakuntza eta -orientazioa
 - Ingeles teknikoa
 - Telearrialdiak

Izena emateko jarraibideak

- Online: Idazkaritza Birtualaren bitartez: www.fadura.hezkuntza.net/web/guest/secretaria-virtual
- Idazkaritzan bertan izena eman daiteke. Idazkaritza-ordutegia: 8:30-13:30.



Fadura Ikastetxea

Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua


Zure etorkizuna hurbil

Berrikuntza, Aniztasuna eta Kalitatea

Berdintasuna eta Ingurugiro-Iraunkortasun baloreetan hezitzaileak

Praktikak atzerrian, Irakasteko metodologia berriak, IKT heldutasuna

Bizkerre z/g 48991 - Getxo - Tf: 94 406 90 00 - www.fadura.eus





Helbidea:
Tartanga 15,
48950 Erandio

Telefona:
944 675 311

Faxa:
944 675 004

E-maila:
admin@tartanga.net

Webgunea:
www.tartanga.net
hezkuntza.net



Tartanga LHII Ikastetxea

Etengabeko Hobekuntza ereduan, erreferentea

Tartanga LHII historia luzeko zentroa da. 1978an sortu zen, Lanbide Heziketa herrialde osoan irakaskuntza autonomo gisa hedatzen zihola.

Zentroak egun hamabost heziketa-ziklo eskaintzen ditu, horietatik hiru euskaraz, eta beste bi gaztelaniaz eta ingelesez. 650 ikasleri ematen die kalitatezko prestakuntza tekniko, araututakoa eta bertaratzekoa.

Ikasleek praktikak atzerrian egiteko aukera dute, eta aholkularitza-zerbitzua eta enpresa-ideiak garatzeko guneak ere aukeran dituzte. Era

berean, ikastetxea merkatura eta enpresa mundura zabalik dago, eta lan-kidetzan aritzen da prestakuntza eta esperimendazio-proiektuak oinarri hartuta, ikasleek lana aurkitzeko aukeretan bitartekari izateko asmoarekin.

Ikastetxearen helburu nagusia bertan hezitako pertsonak unibertsitatean edo bestelako goi-mailako ikasketetan sartzea da, lan munduan murgiltzeko edo euren enpresa propioa

sortzeko, hau da, ekintzaileak izateko, baliabide eta formakuntza aurreratua eskaintzea da helburua. Ikastetxearen jarduna ezagutaraztea eta balioa ematea da ardatza, profesionaltasuna eta gizarte-erantzukizuna lan-munduan txertatzen erraztearekin eta Kalitatea eta Etengabeko Hobekuntzan duen konpromisoan aurrera egitearekin batera. Bere misioan daude inguruarekin duen gizarte-erantzukizuna lantzea eta etengabeko hobekuntzarako kudeaketa-ereduaren esparruan erreferentea izatea; hala, gazteek lana aurkitzeko aukerak sustatzeko bideak zabaltzen ditu. ◀

A eta D ereduak

Hezkuntza eskaintza:

Goi-mailako Heziketa-zikloak

- 3D animazioak, jokoak eta multimedia elkarreragileak
- Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzioa
- Telekomunikazio- eta informatika-sistemak
- Plataforma anitzeko aplikazioak garatzeko goi-mailako teknikariaren titulua
- Mantentze-lan elektronikoa
- Administrazio eta finantzarako goi-mailako teknikaria
- Gizarteratzea
- Ikus-entzunezkoetarako eta ikuskizunetarako soinua
- Sistema elektronikoko eta automatizatuak
- Ingurugiro-osasuna
- Laborategi kliniko eta biomedikoa
- Ingurugiro-kimika

Erdi-mailako Heziketa Zikloak

- Administrazio-kudeaketa
- Instalazio elektronikoko eta automatikoak

Izena emateko jarraibideak

- Idazkaritzan, egunero 09:00-13:00 eta 16:00-17:00. Barikuetan, goizean bakarrik.



CIFP TARTANGA LHII

Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua

Goi eta Erdi mailako Heziketa Zikloak
Langileentzako ikastaroak
Zatikako eskaintza
Prestakuntza zikloetarako sarbidea
Irakaskuntza eleaniztasuna

Enplegurako lan-burtsa
Instalazioen lagapena/erabilera
Proiektuak, jardunaldi teknikoak...

ATEAK ZABALIK: **MAIATZAK 11**, ASTEAZKENA
11:00TATIK 18:00ETARA, EGUN OSOAN ZEHAR

Tartanga, 15- 48950 ERANDIO - 94.467.63.11

WWW.TARTANGA.NET - IDAZKARIA@TARTANGA.NET





Helbidea:
Sarriena auzoa, z/g
48940 Leioa

Telefonoa:
946 012 446

E-maila:
escuela@
hosteleria.net

Webgunea:
www.
hostelerialeioa.net

A eta D eredua

Hezkuntza eskaintza:

Goi-mailako
Heziketa-zikloak

- Ostalaritza eta turismoa
- Sukalde-zuzendaritza
- Jatetxe-arloko zerbitzuen zuzendaritza

Erdi-mailako
Heziketa-zikloak

- Ostalaritza eta turismoa
- Sukaldaritza eta gastronomia
- Jatetxe-arloko zerbitzuak
- Elikagaien industriak
- Okintza, pastelgintza eta gozogintza

Leioako Ostalaritza Eskola

Mahatsondoak landatzen, ortutik triparakoak prestatzen!

Makabeo, Garnatza eta Graziano barietateetako mahatsondoak landatu zituzten joan den martxoan; eskolen arteko elkarlana eta irakaskuntza baliabidea izatea jasotzen dira «Frutales de la Deriva» izeneko proiektuan.

SUSANA ARAKISTAIN ▶
Eskolako irakaslea

Martxoaren hamaseia da, goiz freskoa, ipar mendebaldeko haize zakarra dator eta gure masailetan talka egitean bizirik gaudela erakusten digu...

Talde polita elkartu gara Leioako Ostalaritza Eskolan gure proiektua burutzeko, prest gaude eta hasi gara hirugarren lerroaren landaketarekin.

Agenda 21-eko ikasle talde langilea gogor dabil zulaketa-lanetan, mahatsondoak landatu eta gero tutoreak jarri, eta azkenik kableaz lotu... bukatu dugu mahatsondoen hirugarren lerroaren landaketarekin, eta atzera begirada bat egiten dut, zenbat

elkarrizketa, zenbat proiektu, hainbat burututa, beste makina bat egiteke, melankolia puntu bat ere sartzen zait proiektu honen bitartez bizitako hamaika esperientzia aberasgarri buruan ditudala...

2013ko udaberrian hasi ginen Leioako Ostalaritza Eskolako ortuari forma ematen, ez da zorte makala ostalaritza-eskola bateko ikasleentzat ortu bat edukitzea eskolan bertan, ortuari buruz ikasteko aukera ezin hobe eskaintzen baitu landaketa etxean bertan izateak.

Hurrengo urtean, 2014an, «Frutales a la deriva» izeneko proiektua jarri genuen abian, Arte Ederretako, Irakasle-eskolako eta Ostalaritzako fakultateen artean. Fruta-arbolen pai-

saien berreskurapena sustatzeko martxan jarritako programa da hori, azkenengo urteetan hiru zentroen arteko elkarlan espazio bihurtu dena, irakaskuntza baliabide eta ingurunearekiko errespetu balioak sustatzen dituen.

Bi proiektu horiek era fisiko batean lotzeko, Arte Ederrak eta Ostalaritza eskolen bitartean dagoen landan, hiru mahatsondo-ilara landatzea pentsatu genuen 2016ko hasieran, eta horrela egin genuen. Alde batetik, eskolako zerbitzuetako ikasleengan pentsatzen, eta bestetik, apaingarri gisa.

Landatutako mahatsondoak, Makabeo, Garnatza eta Graziano barrietetakoak dira eta bertan mahatsproduktzio aproposa lortzea ez da lan erraza izango, baina batek daki!

Baliteke, egunen batean, Leioako Ostalaritza Eskolako ikasleek mahatsondo horietan sortutako mahatsekin muztioa edo ardoa egitea.

Eskerrak eman nahi genizkieke proiektua aurrera ateratzen lagundu diguten eta baliabidez hornitu gaituzten guztiei: batetik, Zallako frutagintza estazioari eta bertan lan egiten duten pertsoneri, Antonio Garbayori zehazki, eta azkenik, Leioako Ostalaritza Eskolako Hezkuntza-komunitateari; bestetik, eskerrak eman gura dizkiegu egindako eguraldi kaxkarragaz ekintzan parte hartzera animatu ziren eta irudietan ikus ditzakegun Agenda 21-eko ikasleei ere, hona hemen euren izenak: Jon Agirregomezkorta, Mikel Lizaso, Sara Aldekoa, Maialen Flores, Guillermo Ibarra, Aitor Kortabitarte, Jon Beldarran, Gorka Andres, Jon Marmolar, Genwil Permiso, Garazi Bravo, Arrate Vidal, Daniel Rivas eta Martin Agirre. ◀

Urbe Kostako astekaria

hiruka zaitez!

Urtean 35€ baino ez

hiruka.eus/harpidetza/laguna/
944 911 337
hirukakoop@hiruka.eus

Zu eta biok, **hirukan**, bultzada bera!
Trukean: zozketak, sariak, astekaria eguaztenero...

Grupo AN DESDE 1911
AN AVÍCOLA MELIDA, S.L.

Coc & Coc

Granja Sanig

Granja Sanig S.A.
Torrelarragoiti Industrial poligonoa. 5D partzela - atzekaldea. 48170 Zamudio - Bizkaia
Tel. 946 740 281 - Fax-a: 946 615 834 - www.grupoan.com

Uribe Kosta

Uribe Kosta BHI



Helbidea:
Gatzamina z/g,
48620 Plentzia

Telefonoa:
94 657 10 40

E-maila:
uk@uribekostabhi.com

Webgunea:
www.uribekostabhi.com



B eta D eredu

Hezkuntza eskaintza:

DBH eta Batxilergoa, Gizarte Zientziak eta Humanistikoa zein Zientifiko teknologikoa

Eskola-ordutegia

DBH eta Batxilergoan: 08:20-15:10
*Irail eta ekainean, ordutegia apur bat murrizten da: 08:15-14:30

Zerbitzuak

- Autobusa DBHko ikasleentzat:
 - A linea 7:50. Lemoiz, Armintza
 - B linea 7:55 Mota
 - C linea 7:50 Urduliz BBK, Barrika
 - D linea 7:47 Urdulizko udaletxea, Isuskitza (Plentziako Abanikoa)
 - E linea 7:50 Urezarantza, Gorliz
 - F linea 7:50 Andraka, Gorliz, Plentzia
- Jantokia DBHko ikasleentzat
- Liburutegia

Eskolaz kanpoko zerbitzuak

- Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen dira: kirolak, hizkuntzak, musika...
- Mota askotariko irteerak antolatzen dira, sasoi bakoitzeko bana
- Ikasleei zuzendutako orientabide-zerbitzua eskaintzen da.

Izena emateko jarraibideak

- Online edo ikastetxeko idazkaritzan. Ordutegia zehazteko telefonoz deitu.
- Telefonoa: 946 571 040,
- E-maila: uk@uribekostabhi.com.



Uribe Kosta BHI Eleaniztasuna eta sare-hezkuntza, oinarri

IKTen heldutasun-maila aurreratua duen ikastetxea da Uribe Kosta BHI, etengabeko hobekuntza prozedurakaz bat egiten duena.

Uribe Kosta BHI, B eta D eredu, nerabe eta gazteekin lan egiten duen institutu publikoa da, eskualde osoko ikasleak hartzen dituena. Eleaniztasuna eta sare-hezkuntza dira ikastetxeko proiektuaren oinarriak, eta metodologia kooperatiboa eta parte-hartzailea sustatzen du. Inguru sozial eta kulturean sustraiturik dago, ikastetxeak bai ikasle bai gizarte oro-

korren beharrak asetzea du xede nagusi, aniztasunak zaindu eta ezberdintasunak orekatzen dituen hezkuntza demokratikoa eskainiz.

Instalazio eta zerbitzuak

Uribe Kostako BHIk ikasleen artean teknologia berrien erabilpena lehenesten du; giza baliabide eta ekipamenduei dagokienez, IKTen heldutasun-maila aurreratu duen ikastetxea

ere bada. Institutuaren instalazioei dagokienez, ikasgelez gain, liburutegi propioa, 3 informatika-gela eta *chromebook*-gela bat (ikasle bakoitzarentzako ordenagailu pertsonalarekin egokitua dagoen aretoa), gimnasioa eta kirolean aritzeko patio estalia eta estaligabea ditu.

Eskolaz kanpoko kultur eta kirol jarduera eskaintza zabala eta anitza dauka ikastetxeak, kirolen artean esaterako, saskibaloia, eskubaloia eta areto-futboleko klaseak eskaintzen dituzte. Bestelako zerbitzuei dagokienez, ikastetxeak jantoki- eta garraio-zerbitzuak ere eskaintzen ditu.



www.uribekostabhi.org



IKT-n heldutasun-maila
AURRERATUA duen ikastetxe
Centro acreditado en el nivel
AVANZADO de madurez TIC.

DBH: Eleaniztasuna bultzatzen eta IKTen heldutasun maila aurreratua

Batxilergo: Gizarte Zientziak eta Humanistikoa zein Zientifiko-teknologikoa



Gatzamina z/g - 48620, Plentzia. Telefonoa: 94.657.10.40 www.uribekostabhi.com - uk@uribekostabhi.com

Banda eta DJ Txapelketa, prest!

Barrika On Air

txapelketaren finala ekainaren 18an izango da, San Juan jaien barruan.

Lehenengo edizioaren arrakastaz indartuta, Banda eta DJ Lehiaketa antolatu dute, bigarren aldiz, Barrikako Jai Bartzordeak eta Udalak. Maiatzaren 16ra arte edukiko dute izena emateko aukera II. Barrika On Air sariketan parte hartu gura dutenek. Txapelketak zenbait aldaketa dakar aurten: bate-tik, parte hartzeko DJak edo bandaren kideetako batek gutxienez Barri-ka, Berango, Sopela, Urduliz, Gorniz, Plentzia, Lemoiz, Getxo edo Leioan erroldatuta egon behar du; eta, bes-tetik, ez dago adin-mugarik, edonork parte har dezake. Lehenengo fasean, maiatzaren 23rako, lau banda eta



Ikus-entzuleek ere talderik ala DJrik onena saritu ahal izango dute. © NICOR

lau disko-jartzaile onenak aukeratu-ko ditu epaimahaiak, aurkeztutako parte-hartzaile guztien artean. Anto-latzaileek azaldu dutenez, zortzi ho-riek San Juan jaietan egingo den saio erabakigarriara igaroko dira, finalera, ekainaren 18an egingo dena hain zu-

zen ere. 700 euroko sari nagusiaz gai-nera, musika-produktuetan bonuak eta formakuntza ere egongo dira ere. Gainera, finaleko ikusleek hautatuko duten talderik ala DJrik onenak 150 euroko saria jasoko du. Azkenik, ira-bazleek zuzenean joko dute berriro. ◀



Lanak aurkezteko epea

Maiatzaren 16ra arte.

Sariak

BANDAK:

1. saria, 700€ musika-produktuetan
2. saria, 500€ musika-produktuetan
3. saria, 300€ musika-produktuetan

DJ:

1. saria, formakuntza eta 200€
2. saria, REMIX edo REMASH UP produkzioa
3. saria, REMIX edo REMASH UP produkzioa

info+: liburutegia@barrika.net / 946 775 163



Diskurtsoak. Praktikak
Gorputzak

PERIMETROAK BEKA

Kirol, arte
eta generoari buruzko
ikerketak beka.

SINER GKA BEKAK

esku-hartze
artistikoak
bertoko dendetan



INFORMAZIOA: www.getxo.eus/getxoarte

argi hizki ak

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO TESTU LABURREN V. LEHIAKETA

Maiatzaren 2tik 31ra bidali zure berbak

Irudien eta hizkien hizkuntzetan oinarrituta, ARGIHIZKIAK lehiaketa antolatu dugu Uribe Kostan. ARGIHIZKIAK testu laburren euskarazko literatura-lehiaketa da.

Fotografia edo argazki berbek «argiarekin marraztea edo idaztea» dute jatorrizko esangura. Horrenbestez, zuen begiradek argien eta hizkien hizkuntzekin jolastea proposatzen dizuegu.

www.argihizkiak.com



hiruka

LEHIAKETAREN EZAUGARRIAK

Maila bi: 16-18 urte bitartekoena eta 18 urtetik gorakoena.

Testu bakoitza argazkietako batean egongo da oinarrituta, eta egileak adierazi beharko du zein den aukeratu duena (argazkiaren edo argazkilariaren izenak idatzita).

Testuek euskaraz idatzita egon behar dute, euskara batuan edo edozein euskalkitan.

Edozein testu mota onartuko da (prosa, olerkia, bertsoa, haikua e.a.).

sms, whatsapp edo posta elektronikoz bidaliko dira testuak:
argi.hizkiak@gmail.com • 685 732 963

Atal bi izango ditu lehiaketak:

Testu labur-laburrena: 160 karaktere gehienez
Testu laburrena: 100 berba gehienez.



**ARGAZKIAK IKUSTEKO
ETA LEHIAKETAREN OINARRIAK**

www.argihizkiak.com
info+: argi.hizkiak@gmail.com
T: 685 732 963

EPEA
Maiatzaren 2tik 31ra



GETXO

Algortatik Karrantza aldera, zapatuan

Zapatu honetan, apirilak 30, Karrantza inguruan dagoen Peña del Moro (818 metro) mendira joango dira Egi-zu! eta Ungariko lagunak; hitzordua 09:00etan ipini dute, Faturan. ◀

izen-ematea: egizugetxo@gmail.com

GORLIZ

Taberna ibiltaria, Urris taldeagaz

Gorlizko Kultur Etxeak antolatuta, zapatu honetan, apirilak 30, taberna ibiltariaz gozatzeko aukera egongo da udalerriko erdiguneko kaleetan; Urris musika-talde gorliztarrek girotuko du kalejira, 12:00etatik aurrera. ◀

ERANDIO

Ipuinak entzuteko aukera, Altzagan

Maiatzaren 4an, eguaztena, *Entzum, entzum* izeneko ipuin-kontalari saioagaz gozatzeko aukera edukiko dute 4 eta 8 urte arteko umeek; Inaki Carreterok eskainiko du emanaldia, 18:00etan, Altzagan liburutegian. ◀

bederatzirte

irailaren 23a plaza (Altzaga) | Erandio

Gazte-murala (12:30), bazkaria (15:00), karaokea (17:30), zumba (18:30) eta kontzertuak (21:30) egongo dira. Informazio gehiago: facebook.com/erandioko.gazteasabiada

2016/04/30 - 18:00

Dantza-emanaldia

ibarraeta plaza | Gorliz

Step Up dantza-eskolak antolatuta. Haibat dantza mota erakustez gainera, zumba egongo dute. Doan.

2016/04/30 - 18:00

El libro de la selva pelikula

Kultur etxea | Urduliz

Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

Mikel Laboa plaza (campusa) | Leioa

Bizilur erakundeak antolatuta. Elikadura Burujabetzaren Astearen barruan. Doan.

2016/05/03 - 17:00

Europa, entre la nostalgia y la vergüenza berbaldia

Getxoko Elkarte (Areeta) | Getxo

Ecivis elkarteak antolatuta. Ramiro Muñizegaz (CEAR). Gaztelaniaz. Izen-ematea: asociacionecivis@gmail.com

2016/05/04 - 15:00-17:00

Bide berriak dokumentala

Liburutegi nagusia (campusa) | Leioa

Bizilur erakundeak antolatuta. Euskaraz. Berbaldia ere egongo da. Sarrera, doan.

Zuzenekoetan grabatutako kantuak batu ditu *MMXV* diskoan kantari zornotzarrek.



Mikel Urdangarin, Berangon

Gitarragaz bakarrik eta areto txikietan ibili zen Mikel Urdangarin urtebetean; horren emaitza da 2015eko azaroaren 27an plazaratutako *MMXV* lana. Zuzeneko horietan grabatutakoak dira diskoa osatzen duten 13 abestiak; kantu eza-gunak gehienak, baita tartean berri bi ere. ◀

Noiz: Apirilak 30, zapatua.

Ordua: 20:00

Non: Berango Antzokia.

Sarrera: 3 euro.

SOPELA

Shane MacGowanen gibela, folk-musika baino askoz gehiago

Bariku honetan, apirilak 29, Kurtzio kultur etxean eskainiko dute *Shane MacGowanen gibela* ikuskizuna Gibelurdinek musika-taldeak eta Unai Eiorriaga idazleak. Hitzordua 20:00etan ipini dute; sarrerak 5 euroan daude salgai. Elorriagak «berriatzi» du The Pogues irlandar talde mitikoaren kantariaren ibilera; Gibelurdinek taldeak folk-musikaz jantziko du. ◀



Bilboko Loraldian estreinatuta zuten.

URDULIZ

Mankomunitateko negutegietan lan egiteko topaketa

Urduizten dauzkan negutegietan ingurumen-lanak egiteko boluntario bila dabil berriro Mankomunitatea. Zapatu honetan, apirilak 30, egingo dute topaketa; hitzordua 10:00etan ipini dute. Zelan heldu ez dakienak abisatzeko aukera dauka; 09:45ean egongo dira zain, udaletxean. ◀

info+: 946 579 280 / cursos@uribekostia.org

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektronikoko honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



Uribe Kostako epaile bik osatutako epaimahaia ebazpena irailaren 15ean emango du ezagutzera.

Oinarriak

Modalitateak

- Maila bi daude, adinaren arabera: 16-18 urte bitartekoak, eta hortik gorakoak.
- Atal bi daude, testu-luzeraren arabera: 160 hitz gehienez.
- Testu labur-laburrak: 100 berba gehienez.

Lanak aurkezteko epea

Maiatzaren 2tik 31ra.

Lanen ezaugarriak

Euskara batuan edo euskalkiren batean idatzitako prosa, olerki, bertso, haiku edo bestelako testuak izan daitezke. Egileak adieraziko du zein argazki hartu duen oinarritzat, eta argazkilariaren izena.

Lan-kopurua

Gehienez testu bi bidali ahal izango dira, sms, WhatsApp edo posta elektronikoz.

Sariak

Gazteenek liburu elektronikoko bat izango dute sari; nagusiek, 200 euro. Erakusketa ibiltarian ikusgai ipiniko dira 40 testu.

ArgIHizkiak lehiaketa

Abian da ArgIHizkiak lehiaketa. Aukeratutako 10 argazkietan oinarritutako testu laburren lehiaketara lanak aurkezteko epea zabalik egongo da maiatzaren 2tik 31ra.

Bosgarren urtez, irudien eta hizkien hizkuntzetan oinarrituta, ArgIHizkiak lehiaketa antolatuta dute Uribe Kostan EGIZU Getxo Euskaldun! elkarteak eta HIRUKA komunikazio-taldeak; hurrengoakaz elkarlanean: Uribe Kostako hainbat udalegaz (Getxo, Leioa eta Erandio) eta zenbait elkartegaz (Berbots, Bizarra Lepoan, Aitxu! eta

Leioako berbalagunak). Argazkietan oinarritutako testu laburren lehiaketa da ArgIHizkiak; hala, literatur ekimenaren helburu orokorrak honakoak dira: jendea euskaraz idaztera eta irakurtzera animatzea, eta Uribe Kostako argazkilariak eta euren lana sustatzea eta zabaltea. 'Fotografia' edo 'argazki' berbek «argiagaz marraztea edo idaztea» dute jatorrizko esangura. Ho-

renbestez, gure begiradek argien eta hizkien hizkuntzakaz jolastea proposatzen du lehiaketak.

Aurten, nobebade bi dauzka lehiaketak: batetik, adinaren arabera maila bi izango ditu, 16-18 urte bitartekoa, eta 18 urtetik gorakoa, batez ere gazteenek euskaraz idaztea sustatzeko asmoz; bestetik, hautatutako argazkiak webgunean ikusteaz gainera, kalean ere ikus daitezke, Leioako Boulevarden esekita baitaude, Leioako Udalaren ekimenez. Hala, daborduko ikusgai dauden hamar argazkilariaren argazkietan oinarritutako testuak ida-

tzi beharko dituzte parte-hartzaileek. Idatzitako bidaltzeko epea hauxe izango da: maiatzaren 2tik 31ra.

Bosgarren ediziorako euren argazkiak helarazi dituzten Uribe Kostako (edo bertan bizi diren) argazkilariak honakoak dira: Bego Elexpe Ortiz, Maite Ikaran Souville, Javi Alaña Azkoitia, Eider Moreno Carrero, Amaia Aparicio Tarin, Jose Mari Albisu Carrera, Maitane Sarralde Ussia, Maite Mentez Tena, Anton Alvarez Jimenez eta Naiara Elorriaga Lumbreras. ◀

info+: Argihizkiak.com

lanak: argi.hizkiak@gmail.com / 685 732 963

Zubideak gune irekian izena emateko aukera

Maiatzaren 7an, zapatua, Zubideiak gune irekiaren «elkarrizketa soziala» izango da Leioako Irakasleen Unibertsitate Eskolan, euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz. Interesdunek 09:30etik 18:00etara hausnartzeko hainbat galdera izango dute: «zelako harremana izan behar dute euskarak eta Euskal Herriaren bizi diren gaztelaniak, frantsesak eta bestelako hamaika hizkuntzak? Berba egiten al dugu inoiz guretatik urruneko kezak iritziak eta oztopoak dituztenekin?». Kezka horiek dituzten euskalgintzako, administrazioetako eta etorkinen hogeit bat elkartek eta erakundek ipini dute hitzordua. Euren

ustez, «euskara izan daiteke, testu-guru horretan, sexu, esparru, adin, kultura, hizkuntza eta sektore ezberdinen arteko zubi. Eta Zubideiak-ek horiek denak elkartu gura ditu gune ireki batean, elkarrengatik, ariketa sozial bat egin dezagun euskaraz, aniztasuna eta bizikidetzara ardatz hartuta». Daborduko izena eman daiteke, eta antolatzaileek eskatu dute maiatzaren 2a baino lehen egiteko. Matrikula eta otordua bertan ordaindu beharko dituzte parte-hartzaileek, hamar euroan, baina norbaitentzat garesti izatekotan, lasai esateko eskatu dute. Umeak jagoteko zerbitzua eskainiko dute. ◀

info+: zubideiak@gmail.com / 674 345 756

Bizkaiko Bertsolari Txapelketan, aurrera egiten ahaleginduko dira eskualdeko kideak

Zapatuan, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Udabarriko Fasearen 9 saioetako bosgarrena izango da Derion. 17:30etik aurrera, Gurea aretoan jardungo dute Ixaso Paia eta Imanol Uria algortarrek eta Beñat Vidal leioaztarrek, beste bost bertsolarigaz batera. Bitartean, Nerea Ibarzabal markinarra da sailkapenaren burua, eta eskualdeko bertsolariek, berriz, kanporaketa bi irabazi dituzte daborduko: Peru Vidalek, Berrizkoa, eta Arrate Illarok, Astrabuduan jokatuakoa. Denera, 24 bertsolari pasatuko dira Udazkeneko fasera, puntuen arabera. Litekeena da Arrate Illaro eta Peru Vidalegaz batera Paule Ixiar Loizaga ere sailkatzea. ◀

Martxoaren 5ean berbodromoa egingo du Areetan eta Itzurbaltzetan Egizu euskara-elkarteak

Berbodromoaren bosgarren edizioa egingo du Egizu Getxo Euskaldun! elkarteak datorren maiatzaren 5ean, eguna. Aurten, Areetan eta Itzurbaltzetan/Romo auzoetan izango da; hiru saio egongo dira, bi goizez, eta bakarra arrastiz. Antolatzaileek ipinitako erronka 400 pertsona elkartzea izango da! Goizeko saioak 09:00etan eta 11:00etan izango dira, Areetako Eskola plazan, eta arrastikoa 19:00etan izango da Aurrezki Kutxa kalean, Gure Etxea tabernaren inguruan. Egizuk euskaldunak eta euskara ikasten dabilzanak gonbidatu ditu parte hartzen, lagun, lankide eta sendiakaz. ◀

info+: 619 935 541 / egizugetxo@gmail.com



Maiatzeko eguenetan, berbaldiak, mahai-ingurua eta dokumental-emanaldiak egongo dira.

Komunikatuz eraldatu!

Maiatzeko eguen denetan, herri-komunikabideen bitarteko komunikazioa eraldaketa sozialerako ezinbesteko tresna dela azalduko dute Sopelan eta Getxon.

Mugarik Gabe Gobernu Kanpoko Erakundeak «Komunikatuz eraldatu - herriak euren komunikazioaren jabe» izeneko jardunaldiak antolatu ditu Uribe Kostan, HIRUKA komunikazio-taldeagaz elkarlanean. Mugarik Gabekoek azaldu dutenez, «mass-mediak sustatzen duten pentsamendu bakarrari aurre egiteko, herri-komunikabideen bitarteko komunikazioa ezinbesteko tresna dela erakutsi gura da, eraldaketa soziala, tokian tokiko kultura eta hizkuntzak eta beste jendarte eredu bat bultzatzera bidean. Horretan beharrezan dabil hemengo eta Latinoamerikako komunikabide alternatibo eta indigena ugari». Hala, Sopelan eta Algortan gai hori jorratzeko, berbaldiak, mahai-ingurua eta dokumentalen emanaldiak egongo dira Euskal Herri, Bolivia, Argentina eta Mexikoko komunikatzaile eta kazetarien parte-hartzeagaz. ◀

Egitaraua

Maiatzak 5, eguena

19:00 *Eutsi edo hil, herri indigenen salaketa, ikuspuntu eta proposamenak* dokumental-emanaldia; euskaraz. Sopelako Kurtzio kultur etxea.

Maiatzak 12, eguena

19:00 «Komunikazio alternatiboa eta eraldaketa sozialerako herri-komunikabideak» mahai-ingurua; euskaraz eta gaztelaniaz. Algortako Azebarri kulturgunea.

Maiatzak 19, eguena

19:00 *Eutsi edo hil, herri indigenen salaketa, ikuspuntu eta proposamenak* dokumental-emanaldia eta berbaldia gonbidatu indigenakaz; biak gaztelaniaz. Algortako Villamonte kultur etxea.

Maiatzak 26, eguena

19:00 Herri indigenek egindako dokumentalen emanaldia eta berbaldia gonbidatu indigena batez, gaztelaniaz. Algortako Villamonte kultur etxea.

Elikadura Burujabetzaren Astea egingo dute EHUn

Nekazari Borrokaren Nazioarteko Egunari (apirilak 17) segida emateko asmoz, Elikadura Burujabetzaren Astea egingo dute Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) hiru campusetan, Bizilur, EHNE Bizkaia, Etxalde eta EHUK antolatuta. Berez, ekimenak hiru aste iraungo du, campus bakoitzean bana. Hala, Leioako campusaren txanda maiatzaren 2tik 6ra bitartean izango da. Tarte horretan, *Gure lurra gure etorkizuna* erakusketa zabaldu, eta *Bide berriak: elikadura burujabetza Euskal Herrian* dokumentala emango dute, besteak beste. Gainera, nekazaritza-merkatu ekologiko, sozial eta eraldatzailea egingo dute, maiatzaren 3an, martitzenean, 10:00etatik 15:00ak arte. Horretan, bertoko ekoizleek, Esnetik-ek, REASEk eta FIAREk parte hartuko dute, besteak beste. Halaber, elikadura burujabetzaren alorrean TTIPak zer-zelako eragina izan dezakeen aztertuko dute, maiatzaren 5ean, egue-

nean. TTIPa Europar Batasuna eta AEBak negoziatzen dabiltzan merkataritza askeko akordioa da. ◀

Leioako campusean

Maiatzak 2-6

Erakusketa *Gure lurra gure etorkizuna* Liburutegi Nagusiko sarreran.

Maiatzak 3, martitzena

10:00-15:00 Nekazaritza-merkatu ekologikoa, soziala eta eraldatzailea, Mikel Laboa plazan.

Maiatzak 4, eguaztena

15:00-17:00 *Bide berriak: elikadura burujabetza Euskal Herrian* dokumentalaren emanaldia eta berbaldia, Liburutegi Nagusiko ekitaldi aretoan.

Maiatzak 5, eguena

15:00-17:00 *Elikadura burujabetza eta TTIPa* hitzaldia. Andoni Garcia (COAG) eta Sonia Ingunza (Etxaldeko Emakumeak) Liburutegi Nagusiko ekitaldi aretoan.

Umore Azokan izena emateko epea zabaldu dute profesionalentzat, hilaren 29ra arte

Profesionalek izena eman eta ageria emateko epea zabaldu du aurrean Umore Azokak. Apirilaren 29a arte egongo da zabalik, eta azokaren web-orriaren bidez egin daiteke eskaera. Maiatzaren 19tik 22ra izango da Leioako kale-artisten azoka. Azokaren programazioa benetan da erakargarria; 50 konpainia hautatu ditu zuzendaritzak, 424 hautagaien artean, eta ikuskizun asko erabateko estreinaldiak izango dira. Horrez gainera, II. Euskadi-Akitania Topaketa egingo da lehenengo aldiz Leioan. ◀

info+: www.umoreazoka.org

Getxoarte azokan izena emateko epea maiatzaren 6ra arte egongo da zabalik

Getxoarte 2016ko programa orokorrean izena emateko epea zabaldu du Getxoko Kultur Etxeak; parte hartu gura duten artista denek euren proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte maiatzaren 6ra arte. Jasotako proposamenen artean, 30 aukeratuko dituzte; azaroaren 4tik 6ra egongo dira ikusgai Areetako Xake plazan egongo den Praktika Garaikideen Aretan. Programa orokorra 18 urtetik gorako artistei begirakoa da, merkataritza-ordezkaritza izan ala ez, Euskal Autonomia Erki-degokoak zein kanpokoak. ◀

info+: www.hiruka.eus

Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

Irunbat galp energia

Loiola Ander Deuna, 74
48600 SOPELA
946 764 625
www.irunbat.net

MARTITZEN ETA ZAPATUETAN ESKAINTZA BEREZIA

XURRUT X

Pizza Bar · Musika zuzenean

946 77 13 89 · GORLIZ · www.xurrut.com

94 657 15 24
685 764 662

info@kumarazentroa.com

Kumara zentroa

www.kumarazentroa.com

TERAPIA ALTERNATIBOAK ETA ESTETIKA



Kanpoko 140 ikaslek eta 23 irakaslek bisitatuko dute Getxo. © GETXOKO UDALA

Musika-ikasleen bilkura, Getxon

Europa mailako Emusik jaialdiaren egoitzetako bat izango da udalerria, Donostiako kultur hiriburutzaren barruan; maiatzaren 6an eta 7an joko dute Algortan.

Getxo izango da Emusik izeneko Musika Eskolen Europako Jaialdiaren egoitzetako bat; Donostia2016 Donostiaren Europako kultura-hiriburutzaren egitarauaren barruan, maiatzaren 4tik 7ra bitartean egingo dute festibala. Hala, maiatzaren 6an eta 7an, Algortako San Nikolas plazan, jaialdian parte hartzen duten bost musika-eskoletako gazteek joko dute, Areetako Andres Isasi Musika Eskolako ikasleakaz batera. Denera, 140 ikaslek eta 23 irakaslek bisitatuko dute Getxo, Alemaniatik, Italiatik edo Frantziatik etorriko dira horiek guztiak. Ekimena «aukera paregabea izango da kultura eta herrialde desberdinetako ezagutzak eta esperientziak partekatzeko, eta Europako herri desberdinen arteko hurreztatzea eta hartu-eman bultzatzeko», kultur agintari getxoztarrek goraipatu dutenez. ◀

Egitaraua

Maiatzak 6, barikua

- 18:00 Algortako San Nikolas plaza, - Musikschule der Bundesstadt musika-eskolako banda (Alemania).
- Musikschule der Stadt musika-eskolako banda (Alemania).
- Orchestra Scuola de Musica L'Ottava Nota de Poggio a Caiano (Italia).
- Andres Isasi Hari Orkestra (Getxo, EH).
- Andres Isasi Orkestra Txikia (Getxo, EH).

Maiatzak 7, zapatua

- 19:00 Algortako San Nikolas plaza.
- Ensemble instrumentaux de la Ecole de Musique Autrans (Frantzia).
- Guitar Orchestra de la Fondazione Scuola di Musica C. e G. Andreoli de Mirandola (Italia).
- Andres Isasi Musika Eskolako Aixerrota Kamerata Orkestra (Getxo, Euskal Herria).
- Andres Isasi Musika Eskolako banda (Getxo, Euskal Herria).
- Andres Isasi Musika Eskolako akordeoitaldea (Getxo, Euskal Herria).

Apirilaren 28an *Pride* genero-ikuspegiko pelikula Sopelan, Itzartuk antolatuta

Itzartu Sopelako emakumeen elkar-teak antolatuta, eguen honetan, apirilak 28, *Pride* (2014) genero-ikuspegiko filma egongo da ikusgai Kurtzio kultur etxean. Emanaldia 18:00etan izango da, gaztelaniaz; sarrera, doan. Matthew Warchusek zuzendutako lanak umorea eta drama uztartzen ditu. 80ko hamarkadako Erresuma Batuan gertatzen da, Margareth Thatcher lehen ministroaren agintaldian. NUM Meatzarien Sindikatu Nazionalak greba-deialdia egin zuen gobernuak hainbat meatze ixteko asmoa tarteko, eta Londresko gay eta lesbianen talde batek haiei laguntzea erabaki zuen, dirua batu eta meatzarien familiakaz bat egin.

2014ko Urrezko Globoetan komedia edo musikal onenaren kategorian proposatu zuten, eta BAFTA sarietan idazle, zuzendari eta ekoizle britainiar berri onenen kategorian saritu zituzten Stephen Beresford eta David Livingstone. Lehenengoak *Pride* idatzi zuen; eta bigarrenak, ekoitzi. ◀

Bilbao Hiria Pop-Rock Lehiaketan izena emateko aukera dago, maiatzaren 12ra arte

Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Sailak 28. Bilbo Hiria Pop-Rock Lehiaketa deitu du; iaz The Flying Scarescrow sopoloztarrek irabazi zuten sariketa, Metal atalean. Aurten ere hiru kategoria egongo dira: Pop-Rock, Metal, eta Musika elektronikoa zein Beste joera batzuk. Taldeek lehiaketaren hiru modalitateetako batean emango dute izena; horretarako epea maiatzaren 12ra bitartekoa izango da. Izenematea antolatzaileek zabalduko webgunearen bidez egiteko aukera daukate bandek; bertan dagoen inprimakia bete beharko dute, eta ondokoak bidali: hiru kanta, argazki bat eta taldearen ibilbidea.

Sariei dagokienez, 20.000 euro baino gehiago banatuko dituzte. Horrez gainera, talde irabazleek kontzertuak emango dituzte Bilbon (Aste Nagusian eta Bilborock aretoan) eta beste jaialdi batzuetan (Azkena Rock Festival, Ebrovision...); musika-tresnak ere egongo dira irabazleentzat. ◀

info+: www.bilbao.eus/bilborock



Dantza-eskola eta taldeetako ikasleek parte hartuko dute. GETXO.ILANDA.INFO

Dantza Eguna ospatuz, Areetako Xake plazan

Getxoko Kultur Etxeak antolatuta, zapatu honetan, apirilak 30, Nazioarteko Dantza Eguna ospatuko dute bertoko dantza-eskolek, taldeek eta profesionalek; horretarako, Areetako Xake plaza aukeratu dute (euria bada, Gobela kiroldegian). Hala, goizeko saioan (12:00etatik aurrera), Getxo Kirolak udal erakundeak zein Algortako San Nikolas Ikastolak antolatutako ikastaroetako ikasleek parte hartuko dute. Horiez gainera, bertan izango dira akademia hauetako dantzariak ere: Ana Lararen Dantza Estudioa, Carmen Veraren Dantza Estudioa, Dantzarte, Areetako Flamenko

Eskola, Utopian eta Danco. Bi orduz, estilo askotako koreografiak eskainiko dituzte; berbarako, euskal dantzak, hip-hop, kale-dantzak, *lindy hop*-a (20ko hamarkadan New Yorken sortutako estiloa), dantza modernoa, ballet klasikoa, rocka, neoklasikoa, egungo dantza, lirikoa, tangoa, guajira eta funka.

Arrastian, 17:00etatik aurrera, euskal dantzak eta *lindy hop* mugimenduak ikasteko tailerrak egongo dira; eta, azkenik, eguna biribiltzeko, 19:30ean, dantza-gala egingo dute. Horretan, hainbat koreografia egingo dituzte parte-hartzaileek. ◀



Taularatu

ALEX YGARTUA
Aktorea eta zuzendaria

Ez gaituzte ikusten

Noiz eraikiko dute Gorkizen auditorio bat? 5.000 biztanle baino gehiago duen herri batek ez du ezta leku txikiren bat ere, herriko antzerki taldeak, dantza eskolek, musika taldeek... haien lana aurkezteko. Zer esanik ez, eskasa dela herriari eskaintzen zaion kultur agenda. Halaber, 2011. urtean Teresiano eraikinaren berritze lanetan 500.000€ inguru gastatu ondoren, ondoriozta daiteke, hutsaren hurrengo dela. Gela txikiak, edozein zarata eraikin osotik entzuten da, ikus-entzunezko gelak oihartzun itzela dauka... Proiektu hau, noren kapritxo izan zen? Zerbait hobea BEHAR eta merezi dugu. Kulturaz ikasi eta bizi nahi dugu. ◀



Ikastaro denen zehaztasunak batzen dituen liburuxka har daiteke Gobelan, Faduran eta HIRUKA.EUS-en. © GETXOKO UDALA

Getxo Kirolak udal erakundeak 1.700 leku baino gehiago eskainiko ditu udako ikastaroetan. Tenis, padel, futbol, igeriketa eta haurrentzako kirol-jarduerak izango dira.

az legez, umeentzako aisiako azken ikastaroetan, ingelesez egingo dute umeak egunero ordubetez; eta umeak jagoteko zerbitzua egongo da jarduera-orduen ordu erdi bat lehenago eta geroago. Gainera, kirolen udal-erakundeak Kirolet@n ikastaroa antolatuko du Gobelan zein Faduran, 10 eta 14 urte arteko neska-mutilentzat. Ikastaroan, nerabeek ki-

rola egitea bultzatu gura dute, eta, horretarako, askotariko kirol jarduerak egingo dituzte.

Maiatzaren 11ra arte aurkeztu ahal izango da eskaera Faduran eta Gobelan, herritarrentzako dauden bulegoetan, edo webgunearen bitartez. Izapidea online egiteko, NAN elektronikoa edo norberaren sarbide-gakoa beharrezkoa dira; azken hori kirol-

degietako bulegoetan eska daiteke, asteko edozein egunetan, 08:00etatik 21:30era bitartean. Online sarbide-gakoagaz, instalazioak erreserbatu ahal izateaz gainera, kirol-ikastaroetan al-tak eta bajak kudeatu ahal izango dira deialdi guztietan (udako ikastaroak eta denboraldiko ikastaroak).

Maiatzaren 13an zozketaren emaitza argitaratuko da udal webgunean eta Fadurako eta Gobelako informazio-tauletan. Lekuak automatikoki esleituko dira, eta, eskaerak dauden bitartean, pertsona bakoitzak ikastaro batean bakarrik izena eman ahal

izango du. Ondoren, lekurik balego, esleipen-sistemak prozedura errepikatuko luke, eta pertsona bakoitzeko hiru ikastaro esleitu ahal izango dira. Erreklamazioak, bajak eta ordutegi-al-daketak egiteko epea maiatzaren 13tik 19ra ezarri dute. Gero, eskaintza osatu arte dauden lekuak eskainiko dira.

Getxo Kirolak erakundeak gogorazazi duenez, hastapenean izan ezik, tenis, padel eta igeriketakoetan izena emateko beharrezkoa da maila ziurtatzea, izena emateko unean. Horretarako, interesdunak Kirol arloagaz harremanetan jar daitezke. ◀



KOMUNIKATUZ ERALDATU
Herriak euren komunikazioaren jabe

JARDUNALDIAK /// JORNADAS

Herri indigenak - Herri-komunikabideak - Komunikazioa Eraldaketa Sozialerako
Pueblos Indígenas - Medios populares - Comunicación para la transformación social

SOPELA - GETXO

Latinoamerikako gonbidatu indigenen eta bertako kazetari eta komunikatzaileen parte-hartzearekin
Con la participación de comunicadores y comunicadoras indígenas de Latinoamérica

DOAKO SARRERA

MAIATZEKO OSTEGUN DENETAN / TODOS LOS JUEVES DE MAYO - 19:00etan

Maiazak 5 - Kurtzio kultur etxea (SOPELA)
Dokumental-emanaldia: "Eutsi edo Hil, herri indigenen salaketa, ikuspuntu eta proposamenak" (Euskaraz)

Informazio gehiagorako:
Para más información:

-  www.mugarikgabe.org
-  @mugarikgabe
-  Mugarik Gabe
-  www.hiruka.eus
-  @HirukaEus
-  HirukaEus

#komunikatuzeraldatu

Antolatzaileak




Babeslea





Talde-lanean

JON LOPEZ SAEZ
Entrenatzailea eta kazetaria

Jakin bizitza talde-kirol bat dela

Txikitatik kirola barru-barrutik bizi izan dut. Esparru askotatik heldu diot kirolari gainera. Jolasetik zein lehiaketatik. Buruz buruko jardunetik zein talde-kiroletik. Errendimendutik zein osasunetik. Harmailetatik zein kazetariaren ikuspuntutik. Zaletasunetik zein ogibidetik. Helduleku ugariatik, alegia.

Kirolak eta horrek eman dizkidan esperientzia guztiek nortasuna eraikitzen lagundu didate. Zorionekoa ni, benetan uste baitut kirolak bizitzari aurre egiteko behar ditugun tresna asko gure esku uzten dituela. Talde kirolak batez ere. Talde kirolak erakusten digu ingurukoak behar-beharrezkoak ditugula gure egitasmoak gauzatzeko. Auzolanak aurrera bidaltzen gaituela. Irabaztea mundiala dela, baina galtzeak hazten laguntzen gaituela. Saiazen denak bakarrik izan deza keela lorpenaren saria. Dema badagoela, aurkariak ere bai. Helburu ezberdinak une jakin batean. Horiexek dira gure eguneroko «aurkariak». Besterik ez.

Gure eguneroko jardunerako kirolak emandako irakaspen horiek eta beste hainbat erabiliko bagenitu...

Ohartuko ginatete arrakastatsua izatea salbuespena dela. Jakingo genuke bat irabazteko aurretik hamaika galdu behar ditugula. Erortzen dena txalotuko genuke, erorikoa baita etengabe saiatzen denaren saria. Garatuko genuke eskuak elkartu eta talde lanean aritzeko gaitasuna, ulertuz bidaia ez duela merezi bidai derik gabe.

Har ditzagun kirolaren benetako oinarriak. Eman diezaigun arrakastari merezi duen lekua. Uler dezagun arrakasta salbuespena dela, noizbehinka gertatzen den zerbait, eta gure esku dagoenari heldu. Soilik gure esku da goenari, baina tinko helduta.

Azken finean, bizitza talde kirol bat da. ◀



Javier Otxoa txirrindulari profesionala 2001ean harrapatu zuen auto batek. © PUNTA GALEA

Otxoa omenduz

Javier Otxoa klasika Punta Galea 31. Randonee martxa zikloturista ez lehiakorra maiatzaren 7an izango da.

Daborduko aurretiko inskripzioa egin daiteke Internetez, maiatzaren 5era arte. Horrela egingo dutenen artean hainbat sari zozkatuko dute. Halere, izen-ematea erabat baliagarria izan dadin, parte-hartzaileek dagokien diru-sarreraren egiaztagiria eroan beharko dute Getxoko Andra Mari kiroldegira, maiatzaren 6an, 17:00etatik 20:00etara bitartean, edo martxaren egunean bertan goizeko 07:30etik aurrera. Egun eta ordutegi horretan izen-ematea ere egin ahal izango da. Federatuek lizentzia aurkeztu beharko dute, eta federatu bako zikloturistek egun horretarako behin-behineko aseguruia lortu ahalko

dute izena ematean. Horrez gainera, parte hartu gura dutenek 15 euro ordaindu beharko dituzte; aseguruia eskatzen dutenek, beste 10 euro gehiago.

Txangoa 09:00etan abiatuko da Getxoko kiroldegitik, eta azken urteotako ia ibilbide bera egingo dute, 101 kilometrokoa. Besteak beste, Asua, Larrabetzu, Aretxabala gaina eta Gernika igaroko dituzte Mundakako anoa-postura heldu aurretik; ostean, indarrak batzeko beste aukera bat izango dute Sollube gainean, Markaida eta Andrakako azkenengo aldatsak igo aurretik. Horiek gaindituta, Urdulizetik Andra Mari kiroldegira bueltatuko dira. ◀

info+: Puntagalea.com

Patinatzaile leioaztarrek bost sari lortu dituzte

Leioako Irristaketa Taldeak bost garaikur irabazi zituen Bizkaiko Txapelketan. Leioaztarrek podiuma erdietsi zuten, hainbat kategoriatan, pasaden apirilaren 16an Bizkaiko Patinaje Federazioak Ugaoko Jaro kiroldegian antolatutako Bizkaiko Txapelketan. Hego Uriben saria eskuratu zuten patinatzaile leioaztarrek honako hauek izan ziren: Sandra Fernandez, urrezkoa haurren kategorian; Olaia Garcia, urrezkoa emakumezko gazteen kategorian; Ander Magariño, urrezkoa gizonezko gazteen kategorian; eta Lara Quijano eta Itxaso Mingo, urrea eta zilarra, hurrenez hurren, emakumezko senior-kategoriari. ◀

Kolektibo Norte Erandio-k zortzi urte beteko ditu

Erandio Kirol Elkartearen KNE zale-taldeak 8. urtemuga ospatuko du aste-akabu honetan, Altzagan, Lamiakon eta Udondon. Barikuan, apirilak 29, triki-poteoa egingo dute klubeko egoitzatik abiatuta, 20:00etatik aurrera. Zapatuan, egun osoko festaz gozatzeko aukera izango dute futbolzaleek. Goizeko 10:00etan, bosteko futbol-txapelketa jokatu dute Lamiakoko zelaietan. 13:00etan, bazkaria eta kupelak izango dituzte leku berean. 19:00etatik aurrera, ordea, kontzertua izango da Udondo gaztetxean, Audiencia Nacional, G. Perez, Rock Alkohol eta Milicia Urbana talde eta musikariakaz. ◀

Oztopo-jauzien zaldi-txapelketa Galean izango da

Datozen zapatu eta domekan, apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean, oztopo-jauzien zaldi-txapelketa autonomikoa antolatu dute Getxoko Galea zaldi-klubean bertako elkarteak eta Bizkaiko eta EAEko hipika-federazioek. Proba hori Tranko sariketaren azkena izango da, eta, horrenbestez, erabakigarria. Parte hartu gura dutenek eguna, hilak 28, izango dute izena emateko eta klubean ordainketa egiteko azken eguna. Gehienez jota, 150 zaldi onartuko dituzte antolatzaileek. Hori dela-eta, inskripzioa ahalik eta lasterren egitea komeni da. ◀

info+: 944 603 266 / info@hipicalagalea.com



Leioako Euskal Kirol Zaleak elkarteak 4.215 euroko txekua eman dio Leioako eta Lamiakoko Caritasi. Diru hori herri-kirol elkartearen 40. urtemuga abiatzeko ekintzetan lortu zuten, hilaren 10ean, elkartasun lapikokoan eta emakumeek gidatutako idi-probetan. © LEIOAKO UDALA

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



SARIA

Musiketan zikloa

Eliza Carthy & Saul Rose

kontzerturako 5 sarrera bikoitz dauzkagu

Maiatzak 8, domeka, 20:00;
BBK Aretoa (Bilbo)

Maiatzaren 4a baino lehen,
helarazi erantzuna, zure izen-deiturak,
eta harremanetarako bide bat hona:
hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Zorion agurrak

Bidali zeurea!
publi@hiruka.eus
94 491 13 37

5€



MAITANE ETA GORKA
BILBO - GORLIZ
Familiaren partez

Zorion hirukoitza, bikote!! Ezkontzaren urteurrena betetzear dago eta zuon urtebetetzeak ere hortxe ditugu! Ederki igaro genuen iaz, nola ospatuko dugu aurten? Gure kargu! muxutxuuu!



RAQUEL
BILBO - PLENTZIA
Kuadriren partez

Zorionak, Rachel! Urrun zauden arren, beti zaitugu gogoan! Pilo bat musu bidaltzen dizkizugu Uribe Kostatik New Orleansera!! Zure bueltarako hamaika udako plan izango ditugu prest!



JARE
ALGORTA
Irati eta alboko kantsagarriak

Zorionak, poxpolintxu!!!! Nola da posible urte bakar batekin hain polita eta azkarra izatea?! Etengabe muxuak emateko gogoia itzela sortzen diguzu, baina ez zaitugu gastatu nahi!



ARITZ
ALGORTA
Familiako guzti guztiak

Zorionak, mutil koxkor! Nagusitxo jada! Ea apurtu duzun hanka hori laster osatzen den eta mosto batzuk hartzera eramaten gaituzun patinetean! Muxu piloa!

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Bihotzean maitasun-minen bat izatekotan, ahalgin handia egin beharko duzu zure bizitzagaz aurrera egiteko. Eutsi goiari!



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Kontu denak ondo egitea garrantzitsua da, baina perfekzioa lortzeko orduak eta orduak ematea ez da batere osasungarria.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Ahaztu orain arte egindako guztia; ez du merezi horregaz bueltaka jarraitzea. Heldu da kontu berriei ekiteko garai ona.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Laster, bidai bat egingo duzu, aspaldi esperozenuena. Txango horretan, pertsona interesgarri bat ezagutuko duzu.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Azken boladan jasan dituzun diru-arazotxo horiek desagertuko dira, ganorazko ahalegina egin ez gero. Lasaitu ederra hartuko duzu!



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Aste honetan, oso ondo ibiliko zara osasun- eta maitasun-kontuetan. Poltsikoan, ostera, ezustean zuloa sortuko zaizu. Dena edukitzea ezinezkoa da.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Balio duzun guztia erakusteko aukera ederra izango duzu hemendik gutxira. Balia ezazu aukerara zure alderik onena agertzeko.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Beharra, lana eta militantzia. Hortik kanpo itsututa zabilta. Maiteari kasu nahikorik ez egiteraino. Aldatu zure jarrera ahalik eta lasterren.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Irakurri patxadaz, sutu aurretik: azken boladan oso erraz galtzen duzu pazientzia. Lasai zaitetz, kontu bakoitzak bere denbora behar du-eta.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Izarrak ez ei daudenez zure alde, hobe zure bizimoduan eta proiektuetan aldaketa handirik egiten ez baduzu!



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Gogoko ez zaituen jendea dabilkizu inguruan. Erne ibili horrelako jendilajeagaz, zuretzat arriskutsuak izan daitezke-eta.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Bikotekidea erabat maiteminduta egongo da hemendik gutxira. Baina zalantza ezin duzu burutik kendu: nogaz? Ez izan aldrebesa.

Zu eta biok, hirukan, bultzada bera!



Gure lana, Zure ekarpenak,
Denon babesa eta parte-hartzea,
Bultzada ekonomikoa ere bai!

Urtean
35€
baino ez

hiruka.eus/harpidetza/laguna/
944 911 337
hirukakoop@hiruka.eus

hiruka zaitetz!



Trukean: zozketak, sariak,
astekarla eguazteno...

Itzubaltzeta/Romo

Lehen/Orain



Uribitakora

TESTUA

Ekaitz Larrazabal Gutierrez
Katxo

DOINUA

Haize hegoak hurbiltzen ditu

ARGAZKIA

Hodei Torres

Gogoaren bankua

Hiru kolorek objektu hutsa
nola dute itxuraldatu
aldaketa da izaki eta
objektu guztien patu
baina orain zer da lehenago zena
edo dutena pintatu?
Banku itxurako bandera edo
bandera itxurako banku?

Bertan jesarri eta gogoia
Irlandara doa hegan
Dublin erdian pub handi baten
pinta bat Guinness dut edan
bibolin eta whistle doinuak
entzuten ditut primeran
mugitu barik bidaiatzea
zeinen gauza ederra dan!

Sozialismoa oroitarazten
dit 5 puntako izarrak
langileriak 5 hazdun eskuz
batu ditzala indarrak
laster maiatzak 1 izango du
entzun dira deiadarrak
ai zenbat gauza pentsarazi dit
parkeko banku zaharrak!



Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, ALBEko kideek jarritako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua